

BOZUE UDALTALDE 21

**Tokiko Agenda 21. Altzo
Behin Betiko Diagnostikoaren ERANSKINAK**

Izenburua / Título:	Tokiko Agenda 21. Altzo. Behin Betiko Diagnostikoaren Eranskinak.			
Egileak / Autores:	Amaia Aramendi (Tokiko Agenda 21eko Teknikaria, Tolomendi): Esparru Estrategiko eta Funtzionala; Arau Subsidiarioak; Tolosaldeako Landa Garapen Programa; Tolosaldeako Turismoko Plan Estrategikoa. Miren Askasibar eta Onintza Andrés (Paisaia, S.L.): Goi Mailako Lurralde Antolamendua, LAA eta LAP; Herri Batzarreko Ondorioak.			
Hartzaileak / Destinatarios:	Altzoko udala			
Edizio data / Fecha de edición:	2007ko azaroaren 23a			
Itzulpena / Traducción				
Orriak / Páginas:	88			
Bertsioa / Versión:				
Erreferentzia / Referencia:				
Proiektuaren hasierako data / Fecha de comienzo del proyecto:	2006ko otsailaren 20a			
Iraupena / Duración:	18 hilabete			
Bertsioen historia / Historial de las versiones:	Bertsioa / Versión	Data / Fecha	Ekintza / Acción	Oharrak / Notas

Esparru Estrategiko eta Funtzionala

ALTZOKO UDALAREN ORGANIGRAMA FUNTZIONALA

Udal langilegoa	
Idazkaria (Olga Urbizu Urreaga)	Egunero dago 9:00etatik 15:00etara, %100eko lan-jardunarekin.
Administrari laguntzailea (Eider Azurmendi Iraztortza)	Egunero dago udaletxean 13:00etatik 15:00etara eta liburutegian 16:30etatik 18:30etara.
Aguazila (Jose Manuel Murua Balerdi)	Egunero dago 07:00etatik 14:30etara, eta ostiraletan 13:30 arte.
Garbitzailea (Koro Dorronsoro Sarasola)	Lanorduaren %57a; berak antolatzen ditu orduak.
Gizarte langilea (Agurtzane Lopetegi Etxeberria)	Asteartetan etortzen da 10:00etatik 12:00etara.
Kultur dinamizatzailea	Ez dago, orain Eiderrek egiten ditu lan hauek.
Arkitektoa (Xabier Rezabal)	Asteazkenetan 09:00etatik 11:00etara.
Epaitegikoak	Funtzio hauek idazkariak betetzen ditu.
Udalaren funtzionamendua	
Alkatea -alkateordea eta diruzaina.	Iñaki Murua Gorostidi Lehenengo alkate ordea: Irantzu Arratibel Vitoria Bigarren alkate ordea: Juan Mari Zubeldia Unsain Diruzaina: Leire Olano Jauregi
Zinegotziak	Irantzu Arratibel Vitoria Leire Olano Jauregi Juan Mari Zubeldia Unsain Maria Pilar Zubiarrain Lasa Jexux Agirre Artola *Jesus Mari Luluaga Sarasola (Zinegotzi honen orde, Jose Antonio Erauzkin Galarraga jarriko da. Udala aldaketa prozesuan dago)
Batzorde informatzaileak eta partaideak	Hirigintza eta obrak: Iñaki Murua Gorostidi Nekazaritza, Ingurugiroa eta Zerbitzuak: Juan Mari Zubeldia Unsain Kultur, Hezkuntza eta Euskera: Leire Olano Jauregi Gaztedia, Jaiak eta Kirola: Irantzun Arratibel Vitoria Industria eta Turismoa: Maria Pilar Zubiarrain Lasa Hazienda eta Pertsonala: Jexux Agirre Artola Ongizate eta Osasuna: Jesus Mari Luluaga Sarasola
Plenoak	Hilabeteko 1. astelehenetan egiten da goizeko 10:00etan.
Bilerak	Gai jakinen inguruan biltzen dira.

Udalgaindiko erakundeak eta ordezkariak	
Loatzo musikako Mankomunitatea	Titularra: Leire Olano Jauregi Ordezkoa:
Gipuzkoako Urak	Titularra: Juan Mari Zubeldia Unsain Ordezkoa:
Tolomendi	Titularra: Maria Pilar Zubiarrain Lasa Ordezkoa:
Tolosaldeako Mankomunitatea	Titularra: Juan Mari Zubeldia Unsain. Ordezkoak:
Tolosaldea Garatzen	Titularra: Iñaki Murua Gorostidi Ordezkoa:
Apattaerreka Industrigunea, SL	Titularra: Maria Pilar Zubiarrain Lasa. Ordezkoa:
Tolosako Hiltegi Komarkala	Titularra: Jexus Agirre Artola Ordezkoa:
Euskal Fondoa	Titularra: Jexus Agirre Artola. Ordezkoa:
Tolosako Heziketa eta Enplegurako Eskualde Elkarte	Titularra: Juan Mari Zubeldia Unsain Ordezkoa:
UEMA	Titularra: Irantzu Arratibel Vitoria Ordezkoa:

ALTZOKO UDALAREN AURREKONTUA

Sarrerren egoera				
Kap	IZENA	2005 (€)	2006 (€)	2007 (€)
1	Zuzeneko zergak	88.500,00	88.500,00	114.300,00
2	Zeharkako zergak	20.000,00	30.000,00	30.000,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	42.954,57	43.030,00	29.140,00
4	Transferentzia arruntak	283.359,52	291.975,00	321.797,09
5	Ondarezko sarrerak	2.131,00	1.131,00	1.733,50
6	Lur sailen salmenta	0,00	0,00	0,00
7	Kapital transferentziak	41.700,00	89.337,00	170.921,58
8	Finantza aktiboa	114.884,99	114.446,00	162.293,01
Guztira:		593.530,08	658.419,00	830.185,18

Goi Mailako Lurralde Antolamendua: LAA, LAPak

LURRALDE ANTOLAMENDURAKO ARTEZPIDEAK (LAA)

28/1997 DEKRETUAK, otsailaren 11koa, behin betiko onetsia.

Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak Euskal Herriko lurraldea antolatzeko tresnak definitu eta araupetzea du xede, horretarako lege honek hiru tresna sortzen dituelarik: Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (LAA), Lurraldearen Zatikako Planak (LZP) eta Lurraldearen Arloko Planak (LAP).

Lurraldearen antolamendurako Artezpideak (LAA) lurraldearen eta hiri antolaketarako gainerako tresnak gauzatzeko abiapuntu dira.

LAAetan adierazten denez, Eskualde Egitura, eta horietako bakoitzari dagozkion hiri nagusiak dira Autonomia Erkidegoaren testuinguru orokorrean lurralde oreka gordetzeko sor daitezkeen estrategiak aplikatzeko "pieza gakoak". Aztergai diren udalerrriak (Abaltzisketa, Altzo, Amezketa, Baliarrain, Ikaztegieta eta Orendain) Toloserriko Eskualde Egituraren baitan leudeke, Tolosa izanik Eskualde Egitura honen buru.

Landa eremua LAAetan

Landa eremuei dagokienez, LAAek ezinbestekotzako jotzen dute eremuon idiosinkrasia gordeko duen eta bertan enplegua sortu eta garapen iraunkorra bideratzeko baldintza egokiak sortuko dituen landa area hauek indartzeko estrategia artikulatzea. Hau lortzeko beharrezkotzat jotzen da Landa Garapenerako Politika Integrala abiaraztea ondoko helburuekin: populazioaren gainbehera gelditzea, ehundura ekonomikoa aniztea, balio natural eta ekologikoa indartzea, oinarrizko azpiegiturak- zerbitzuak- ekipamenduak hobetzea eta azken finean bertako biztanleen bizi kalitatea hobetzea.

Ingurune fisikoaren antolamendua

- LAAek Interes Naturalistikoa duten Eremuen Zerrenda Irekia proposatzen dute, non Toloserriko Eskualde Egiturari dagokionez ondoko espazioak jasotzen diren:
- Ernio- Gatzume (Alkiza, Albiztur, Bidegoian, Errezil, Hernialde, Tolosa, Larraul eta Asteasu): balio geologiko, faunistiko eta botanikodun espazio gisa sailkatzen dute LAAek.
- Murumendi (Beasain, Itsasondo, Beizama eta Bidegoian): balio botanikodun espazio gisa sailkatzen dute LAAek.
- **Araxes ibaiaren harana, Jazkugañe eta Basabe** (Lizartza, Altzo, Alegia, Tolosa (Bedaio), eta Leaburu-Gaztelu): balio botanikodun espazio gisa sailkatzen dute LAAek.
- Atxulondo- Abalotz (Donostia (Zubieta), Andoain, Zizurkil eta Aduna): balio botaniko eta arkeologikodun espazio gisa sailkatzen dute LAAek.

Ekonomi jardueretarako eremuak

Toloserriko eskualde egituren LAAek **Adunako Ibarra** proposatzen dute lurralde ereduko industri jardueretarako eremu nagusi gisa.

Bigarren etxebizitza

LAAetan lurzoru urbaniza ezinean etxebizitzak etengabe eraikitzeke joera geldiaraztea eta eskari hau landa eremu jakin batzuetan bigarren egoitza (ordena zehatz batean) garatuz bideratzea proposatzen da. Honela, Toloserriko eskualde egituren, **Abaltzisketa**, Albiztur, **Amezket**a eta Bidegoian oinarri endogenoa duen bigarren egoitza gisa proposatzen dira.

Atsedeen eremuen eta lurraldean sartzeko guneen sistema

LAAek Toloserriko Eskualde Egituran Murumendi, **Aralar**, Amasa Mendi- Belabieta, Gaztelu eta Pagoeta- Ernio- Andatza proposatzen dituzte atseden eremu gisa, eta Albiztur, Bidegoian, **Amezket**a eta **Abaltzisketa** lurraldean sartzeko gune gisa.

Garraio eta komunikazio azpiegiturak

Tolosatik Nafarroarako autobiderako konexioa oinarritzat jotzen dute LAAek, Berastegin barrena. Bestalde, Azpeitia- Azkoitia eta Tolosa arteko konexioa, zeharkatzen duen ingurune naturalaren interesa dela eta, interes paisajistikodun ibilbide gisa sailkatzen dute.

Nazioarteko zabaleradun trenbide berria -"Euskal Y"- Lurralde Historikoetako hiru hiriburuak elkarrekin eta Autonomi Erkidegoa Iberiar Penintsularen gainerakoekin eta Europarekin konektatuko dituen ahalmen handiko trenbide-garraiabidetzat jotzen dute LAAek. Euskal Y-aren eta Iruñea eta Zaragozaren arteko abiadura handiko trenbide-konexioa, 1993-2007 Azpiegituren Gida Planean aurreikusia, garrantzi handikotzat jotzen da Euskal Herria Ebro ibaiaren Ardatzean neurri handiagoan integratzeko.

Bestalde, Aldiriko Tren-Zerbitzuak hartzen dituzte LAAek iraganbide nagusietan zeharreko bidai bolumen handiak bideratzeko egokientzat. Hortaz, Aldiriko Zerbitzua sendotu egingo direla adierazten du oinarritzko ardatzetako tarteetan (besteak beste Legazpi- Zumarraga- Beasain- Tolosa- Andoain- Hernani- Donostia tarte).

JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA SORTZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA

262/2004 DEKRETUAK, abenduaren 21ekoa, behin betiko onetsia.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan (LAA) espresuki aurreikusten da Erakunde Publikoek Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko Lurraldearen Arloko Plana idaztea; dokumentu horretan honako zehaztapen hauek ezarri beharko direlarik, besteak beste:

- Jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko eragiketen kokapenen identifikazioa.
- Jarduera hauek lurraldearen gunek bakoitzean hartuko duen lurzoru-gainazalaren kuantifikazioa eta jarduketa bakoitzak bete beharko dituen ezaugarrien zehaztapena.
- Beharrezko inbertsioen programazioa eta proposatutako esku-hartze publikoen ikuspegia eta bideragarritasuna aditzera emango dituen azterlan ekonomikoa.

Jarduketa ekonomikoetarako lurzoruaren problematika

Toloserriko eskualdeko lurzoru lau gehiena haranen hondoetan kokatzen den errenkada estua da eta dagoeneko hiri-garapenak hartu du.

Tolosako hirigune nagusiaren eta Villabona eta Alegiako hirigune txikien inguruan biltzen diren landa-izaerako udalerritxikiez osatutako eskualdea da. Duela gutxi arte industria eta bizitokiko garapena aipatutako hirigune horietara zuzendu izan da. Hala ere, Tolosa eta Villabonako udalerrietako espazioa ase ondoren, industria eta hirigintzako garapena eskualdeko gainerako udalerrietara zabaldu da.

Eskualde-egituran ez dago enpresa handirik, bertako industria-ehuna metal eraldatuen sektoreko eta papergintza sektoreko tamaina txikiko enpresek osatzen dute.

Azken hamarkadan eskualdearen Iparraldeak (Adunako ibarra, Zizurkil, Asteasu, Villabona, Irura) nolabaiteko industria-garapena izan du, Donostialdetik hurbil egoteak eraginda, baina hegoaldean (Tolosa, Ibarra) industria-gainbehera handiko panorama antzeman daiteke, papergintza-sektorearen krisialdiaren ondorioz.

Eskualdearen industria-problematika nagusia, hortaz, Tolosako papergintza sektoreak eta industriak, oro har, duten birmoldatzeko premian datza. Tolosako udalerrian ez dago enpresak lekualdatu edota zabaltzeko industria-lurzorurik eta, horrenbestez, enpresak hurbileko udalerrietarantz jotzen ari dira. Hortaz, Toloserrin, enpresa hauek lekualdatzeko poligono berri bat sustatzeko beharra antzematen da.

Jarduera garatzeko/sustatzeko lurzorua

ekonomikoak lehentasunezko

Lurraldearen Arloko Planak ekonomia-jardueren alorrean garrantzi kuantitatibo edo kualitatibo bereziko problematika duten esparruak edo euren kokapen estrategikoa dela eta etorkizunean ekonomia-hazkunde garrantzitsua izan dezaketen esparruak "Lehentasunezko esparru" gisa definitzen ditu. Eremu hauetan ekonomia-jardueretara zuzendutako lurzoruak antolatu, kudeatu, sustatu eta garatzeko lehentasunezko politikak garatea proposatzen du, aurriak kentzeko prozesuak bultzatu eta industria-ehun zaharkituak birmoldatzeko prozesuak bideratzea planteatuz. Toloserriko eskualde egiturari dagokionean N-1 errepidearen ardatza identifikatzen du LAPak lehentasunezko esparru gisa.

Jarduera ekonomikoko ezarpenak kokatzeko jarraibideak sistematizatzeko asmoz, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriz guztiak hiru kategoriatan sailkatzen dira LAPan. Toloserriko Eskualde Egiturari dagokionean:

- **Lehentasunezko interesekoak:** Aduna, Alegia, Anoeta, Asteasu, Ibarra, **Ikaztegieta**, Irura, Leaburu, Tolosa, Villabona eta Zizurkil.
- **Hazkunde motelekoak:** **Altzo**, **Amezket**a, Belauntza, Lizartza.

- **Garapen txikikoak: Abaltzisketa**, Albiztur, Alkiza, **Baliarrain**, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Larraul, Gaztelu, **Orendain** eta Oresa.

Bestalde, LAPak, industria-ehunaren birmoldaketaren edo komunikabideekiko kokapen eszentrikoaren ondorioz gainbehera ekonomikoan edota demografikoan dauden zonetan ekintza dinamizatzaile eta sustatzaileak programatzeko komenigarritasuna aipatzen du. Eremuotan ekonomia-jarduera berriak ezartzeko hiru motatako edo mailatako sustapen-eragiketak proposatzen ditu:

- Ekonomia suspertzeko eta industria-birmoldaketa jasaten duten eremuen hirigintza leheneratzeko sustapena. Toloserriko eskualde-egiturari Tolosa-Ibarrako zona talde honen baitan legoke.
- Industria-enpleguan defizita duten eskualde-buruak dinamizatzeko sustapena.
- Landa-inguruetan industria-jarduera bultzatzeko sustapena.

Jarduera ekonomikoetarako lurzoru baliabideak

Toloserriko Eskualde Egiturari dagokionean:

Jarduera ekonomikoetarako lurzorua (Ha.)			
Udalerrria	Okupatua	Librea	Guztira
Abaltzisketa	-	-	-
Aduna	26,31	2,03	28,34
Albiztur	2,42	-	2,42
Alegia	5,65	4,00	9,65
Alkiza	-	-	-
Altzo	3,77	-	3,77
Amezketeta	4,27	0,9,	5,17
Anoeta	9,02	2,40	11,42
Asteasu	14,4	8,30	22,70
Baliarrain	-	-	-
Belauntza	15,85	1,80	17,65
Berastegi	1,83	3,75	5,58
Berrobi	2,73	-	2,73

Jarduera ekonomikoetarako lurzorua (Ha.)			
Bidegoian	3,31	1,00	4,31
Elduain	2,70	-	2,70
Gaztelu	0,15	0,50	0,65
Hernalde	-	-	-
Ibarra	1,16	36,06	37,22
Ikaztegieta	4,37	1,73	6,10
Irura	13,71	4,11	17,82
Larraul	-	-	-
Leaburu	1,16	6,41	7,57
Lizartza	3,44	4,20	7,64
Orendain	-	-	-
Orexa	-	-	-
Tolosa	39,68	21,81	61,49
Villabona	14,40	6,70	21,10
Zizurkil	18,19	5,33	23,52
Toloserriko eskualde egitura	188,52	111,03	299,55

Lurzoru okupatutzat dagoeneko industria-jarduerak dituzten lurzoruak eta jarduera berriak ezartzeko jadanik hitzemandako eremuak daude.

Bestalde, lurzoru libre kalifikatutzat hartutako 111 hektareak ez dira lurzoru eskaintza erreala, lurzoru-azalera hau eremu txikien baturari dagokio eta tamaina handi samarreko eremuen kasuan beren hirigintza-garapena oztopatzen duen arazoren bat azaltzen da.

LAP honek, industria- lurzoru berria sortzeko bi aukera proposatzen ditu:

- Apattako Eskualde Mailako Poligonoa (Ibarra, Leaburu, Tolosa) eraikitzea. Bertan 50 Ha. birkalifika daitezke. SPRILUR (Eusko Jauriaritzako Industria Saila), Gipuzkoako Foru Aldundia eta Udalek sustatutako ekimen publikoko eskualde-poligonoa.
- Adunako ibarreko lurzoru libreak garatzea. Bertan 20/25 Ha. birkalifika daitezke. Adunako ibarrean industrialde bat ezar daiteke, Andoain- Villabonako eragin-eremuan, eta garraioaren zerbitzurako poligono bat antolatu N-1 errepideari eta Nafarroako autobiarri zuzenean lotuta.

Epe ertainean, berriz, hautabidezko beste kokalekuren bat aurkitzeko bideragarritasunari buruzko azterlanak egiteko beharra - Tolosaldea mailako industrialdea, 15/25 Ha.- planteatzen du LAPak.

Saltoki handiak

Merkataritza-ekipamendu handien kokapena eta dimentsionamendua arautzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien sailkapen bat ezartzen da, Merkataritza-ekipamendu berrien gehienezko dimentsionamendua kasuan-kasuan kokatzen den udalerraren arabera araututa geratzen delarik:

- **A kategoria:** zentraltasun handieneko udalerriak. Saltoki berrien gehienezko dimentsionamendua:
 - Plataforma zelaituaren gehienezko azalera garbia: 75.000 m².
 - Eraikitako gehienezko sabai-azalera: 25.000 m²
- **B kategoria:** eskualde-zentraltasuneko udalerriak. Saltoki berrien gehienezko dimentsionamendua:
 - Plataforma zelaituaren gehienezko azalera garbia: 40.000 m².
 - Eraikitako gehienezko sabai-azalera: 13.000 m²
- **C kategoria:** Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako udalerriak. Udalerrri hauetan ez da aurreikusten merkataritza ekipamendu handirik ezartzea. Saltoki berrien gehienezko dimentsionamendua:
 - Plataforma zelaituaren gehienezko azalera garbia: 15.000 m².
 - Eraikitako gehienezko sabai-azalera: 5.000 m²

Toloserriko eskualde-egituran, Aduna, Anoeta, Ibarra, Irura, Tolosa eta Villabona "**B kategoria**"ren baitan ageri dira. Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ikaztegieta, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa eta Zizurkil, berriz, "**C kategoria**"ren baitan ageri dira.

Egungo industria lurra

ESKAITZA PUBLIKOA

Kokapena	Izendapena	Eskaintza mota	Azalera osoa (m ²)	Azalera erabilgarria(m ²)
Tolosaldea	Appattaerreka	Partzelak eta pabilioiak	500.000	100.000

Apattaerreka, sustapen publikoko eskualdeko industria-poligonoak, 500.000m² inguru hartzen ditu guztira; horietatik 112.000 m² eraikigarriak dira lehen fasean. Poligono honetan tamaina ertaineko eta handiko lur-zatiak eskaintzen dira eta tamaina txikiko enpresentzako ohiko industrialde bat.

Industria-poligono hau TAILSA sozietateak kudeatzen du; sozietate horretan eskualdeko udalek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzaren SPRILUR sozietateak parte hartzen dute.

ESKAITZA PRIBATUA

Kokapena	Izendapena	Eskaintza mota	Azalera osoa (m ²)	Azalera erabilgarria(m ²)
Bidegoian	Reviglas	Industri lurra	10.500	4.400
Albiztur	Antalis Iberica	Industri lurra	16.280	3.400

EAEKO ENERGIA EOLIKOA ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA (LAP)

104/2002 DEKRETUAK, maiatzaren 24koa, behin betiko onetsia.

EAEko Energia Eolika Antolatzeko Lurralde Arloko Planaren helburua parke eolikoak eraikitzekeo lekuri egokienak aukeratzea da, beti ere lurralde mailako eragin nabarmena izan dezaketen parke eolikoek dagokienean. Honela LAP honek 8 haize-errotak baino gehiago eta 10 Mw baino gehiagoko potentziadun parke eolikoenganduz eragina.

Bideragarriak izan daitezkeen kokalekuak

Parke eolikoak eraikitzekeo bideragarriak izan daitezkeen kokalekuen artean, Toloserriko Eskualde Egituraren baitan Gatzume, Ernio eta Mandoegi aurkitzen dira.

Kokalekua	Batez besteko abiadura (m/s)	Luzera (Km)	Haize-errotak	Potentzia (MW)	Produkzioa (GWh/año)
Gatzume	6,8	1,7	17	11,2	28,0
Ernio	6,5	4,0	31	20,5	47,0
Mandoegi	6,3	12,6	105	69,3	150,5
Aralar	7,3	7,6	59	38,9	108,6

Bideragarriak izan daitezkeen kokalekuok identifikatzeko haize baldintzak eta lerrokaduraren luzera bakarrik izan dira kontutan.

Aukeratutako kokalekuak

Kokaleku bakoitzeko baldintza teknikoak eta ingurumenekoak kontutan izanik zenbait kokaleku baztertu egin dira. Tolosalde Eskualde Egiturari dagokionean baztertu diren kokalekuak Ernio eta Aralar izan dira jarraian adierazten diren arrazoirengatik:

- **Ernio:** Harkaitzezko gailurra du, zatirik handienez lanak burutzea ezinezkoa izango litzatekeelarik. Bideragarritasun ekonomiko ezagatik baztertzen da, beraz, kokaleku hau
- **Aralar:** Babestutako Naturgunea da, bertan parke eolikoa ezartzeak eragin kritikoa izango lukeelarik. Bestalde, lanak burutzea ezinezkoa egiten duten zenbait gune malkartsu eta harkaitzezko daude bertan. Beraz, bideragarritasun ekonomiko ezagatik eta naturgune babestuen gaineko eraginagatik baztertzen da kokaleku hau

Kokalekua	Batez besteko abiadura (m/s)	Luzera (Km)	Haize-errotak	Potentzia (MW)	Produkzioa (GWh/año)
Gatzume	6,8	1,7	17	11,2	28,0
Mandoegi	6,3	12,6	105	69,3	150,5

Aukeratutako kokalekuak bi taldetan sailkatzen ditu LAP honek:

- **I Taldea:** Parke eolikoak, ahal bada, talde honetan kokatutako kokalekuetan ezarriko dira. Tolosalde Eskualde Egiturari dagokionean talde honen baitan Mandoegi kokatuko litzateke.
- **II Taldea:** Parke eolikoak, ahal bada, ez dira talde honetan kokatutako kokalekuetan ezarriko –talde honetako kokaleku batzuetan bakarrik ezarriko dira parke eolikoak-. Tolosalde Eskualde Egiturari dagokionean talde honen baitan Gatzume kokatuko litzateke.

ETXEBIZITZEN SUSTAPEN PUBLIKORAKO LURZORUA ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA (LAP)

Aurrerapen fasean.

Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzekeo Lurraldearen Arloko Planaren bidez LAAen eta Lurraldearen Zatiko Planen proposamenekin bat etorritz, etxebizitza babestua sustatzeko gordetako lurzoruak kokatu, banatu eta dimentsionatzeko irizpide nagusiak proposatzen dira.

Biztanleria eta etxebizitzen eboluzioa

Eskualde Egiturako biztanleriak azken bi hamarkadetan etengabe egin du behera.

Hala ere biztanleriak izandako portaera ez da homogenea izan eskualde osoan; horrela, zenbait udalerritan, Villabona, Irura eta Anoeta, besteak beste, %2 eta %3 bitarteko hazkundeak izan dira, baina, Tolosa-Ibarra eta Alegian, berriz, batez bestekoaren antzeko galerak izan dira (-%4,7) eta udalerrri txiki gehienetan biztanleriak %10 egin du behera.

Etxebizitzen parkeak 2.068 unitate gehiago lortu ditu 1986-1996 aldian.

Fluxu demografikoen proiektzioa 1996-2008 eta 2008-2016 aldietarako:

Toloserriko Eskualde Egitura	1996-2008 aldiko proiektzioa			2008-2016 aldiko proiektzioa		
	Jaiotzak	Heriotzak	Migrazioa	Jaiotzak	Heriotzak	Migrazioa
	4.405	5.512	-1.138	3.199	3.758	-397

Demografiaren proiektzioan etorkizunean izango dituen premiak aztertuz gero, berriz, 1996/2016 aldiko etxebizitza-premia 165 etxeb./urteko izango dela kalkulatu da LAPean.

Planaren proposamenak

Toloserriko Eskualde Egiturari dagokionean bizitegitarako eskaintza 4.600/5.100 etxebizitza artekoa izango da Planaren arabera. Bizitegitarako hazkunde intentsiboak Oria haranean (Villabona-Elbarrena, Irura-Anoeta, Tolosa-Ibarra eta Alegia herriguneetan) biltzea proposatzen da. Bestalde, alboetako haranetan dauden landa-udalerrietarako bertako eskariari erantzungo dioten eta gaur egungo herriguneek dituzten ezaugarriekin bat etorriko diren tipologiak dituzten hazkunde txikiak iradokitzen dira.

Villabona, Zizurkil, Irura, Anoeta, Tolosa, Ibarra eta Alegia udalerriak babes publikoko etxebizitzetara bideratutako lurzoruen hirigintzako antolamendurako, sustapenerako eta kudeaketarako lehentasunezko intereseko udalerriei dagokien kategorian sailkatuko dira.

Izaera erdi-hiritarra eta landatarra duten udalerrietan —Aduna, Asteasu, Larraul, Alkiza, Hernialde, Belauntza, Berrobi, Elduain, Berastegi, Leaburu, Gaztelu, **Altzo**, Lizartza, Oresa, Albiztur, Bidegoyan, **Amezket**a, **Baliarrain**, **Orendain**, **Abaltzisketa** eta **Ikaztegieta**n—, populatze barreiatua edo dentsitate txikia ezaugarri dituen asentamendu mota denez nagusi, lehendik dagoen parkea hobetzeko eta berreskuratzeko oinarrizko politika birgaitze isolatuaren bidez egingo dela aurreikusten da berriz Planean. Dena dela, ez dira baztertzen eskari antolatua oinarritzat duten aukerako jarduerak.

“Erabili gabeko” etxebizitza hutsei dagokienean, hauek erabiltzea da LAParen helburu estrategikoetako bat. Hori dela eta, helburu gisa proposatzen da planak irauten duen bitartean egun hutsik dauden 100 etxebizitza inguru alokairuen merkatuan jartzea Tolosa-Ibarra eta Villabona-Zizurkil udalerrietan.

Plan honen baitako eraikuntza-helburuei jarraiki, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eta berorri atxikitako sozietateek 410 bat etxebizitza babestu eraikiko dituzte Toloserriko Eskualde Egituran. Planean barne hartu ez diren arren, bestelako eragileek beste 800 BOE eraikiko dituztela aurreikusten da, bestalde.

EAEKO IBAIEN ETA ERREKEN ERTZAK ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA (LAP). ISURIALDE KANTAURIARRA

415/1998 DEKRETUak, abenduaren 22koa, bidez, behin betiko onetsia.

EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen irizpideak garatzen eta xehetasunez azaltzen ditu.

LAParen idazketan buru izan diren irizpide orokorrak ondokoak dira:

- Uren kalitatea artatzea edo/eta berreskuratzea.
- Gutxiengo emari ekologikoari eustea.
- Ibaien eta erreken ubideen okupazioa ekiditea.
- Uholdeetatik eta arrisku naturaletatik eratorritako kalteak minimizatzea.
- Ingurugiro-interes berezia duten ubide-zatien ezaugarriak artatzea.
- Kultur ondarearen elementuak zaintzea.
- Ibaietako ubideak hiri-garapenerako zonetan integratzea.

LAPak ibaiertzak eta erreka-ertzak ondoren adierazten den bezala banatzen ditu zonatan edota ibaitartetan:

- Ertzak zonatan banatzea ingurugiro osagaiaren arabera.
 - Lehentasunezko interes naturalistikoko zonetako ertzak.
 - Ondo artatutako landaredia duten ertzak.
 - Higadura eta lerradura arriskua edota akuiferoen urrakortasuna dituzten zonetako ertzak (LAAetako baldintzatzaille gainjarriak)
- Ibaibideak ibaitarteetan banatzea beren arro hidraulikoen arabera.
- Ertzak zonatan banatzea beren hirigintza osagaiaren arabera

- Landa eremuko ertzak.
- Hiriarteko komunikazioetarako azpiegiturek betetzen dituzten ertzak.
- Garatutako eremuetako ertzak.
- Hirigintza garapen berriak egiteko potentziala duten eremuak.

Oria ibaiaren arroa

Aztergai ditugun sei udalerriak (Abaltzisketa, Altzo, Amezketa, Baliarrain, Ikaztegieta eta Orendain) Oria ibaiaren arroan kokatzen dira.

Oria ibaiaren arroak 889 Km²-ko guztizko azalera du. Bere adar nagusiak eta horien azpi-arroak honako hauek dira:

- | | |
|---|-----------------------------------|
| a) Eskuinaldeko ertzean: | - Agauntza (84 Km ²) |
| - Leizaran (122 Km ²) | - Ursuaran (20 Km ²) |
| - Zelai (34 Km ²) | b) Ezkerraldeko ertzean: |
| - Araxes (106 Km ²) | - Artxodi (12 Km ²) |
| - Basabe (12 Km ²) | - Santio (27 Km ²) |
| - Amezketa (60 Km ²) | - Asteasu (29 Km ²): |
| - Bedaio (17 Km ²) | - Albiztur (28 Km ²): |
| - Ibiur (12 Km ²) | - Berostegi (11 Km ²) |
| - Amundarain (40 Km ²) | - Estanda (55 Km ²) |
| - Urtxubi (14 Km ²) | - Mutiloa (16 Km ²) |

Aztergai ditugun udalerrietan jarraian adierazten den bezala sailkatzen ditu LAPak Oria ibaiaren arroko ibaiertzak:

- Ingurugiro osagaiaren arabera
- Hirigintza osagaiaren arabera

INGURUGIRO OSAGAIAREN ARABERA

EAEko Espazio Natural Babestuen Sarearen baitan dagoen **Aralar Parke Naturaleko** ibaien ertzak lehentasunezko interes naturalistikoko guneen ertz izendatzen ditu LAPak.

“Natura 2000” sarearen baitan dagoen Oria Garaia espazioaren ibai ertzak ondo babestutako landaredia duten ertz izendatzen ditu LAPak Oria ibaiaren gehiengoa. Hala ere, ur-ibilguaren ekialdeko muturrean, berreskuratzeko premia duten ertzak identifikatzen ditu.

“Natura 2000” sarearen baitan dagoen Araxes espazioaren ibai ertzak ondo babestutako landaredia duten ertz izendatzen ditu LAPak. Hala ere, Amategi Aldean berreskuratzeko premia duten ertzak identifikatzen dira.

LAAean Interes Naturalistiko eremua den Araxes-Jazkugañe-Basabe haraneko Altzoko lurretan, lehentasunezko interes naturalistikoa duten ertzak identifikatzen ditu LAPak.

Aipatutako eremuetatik kanpo badira ondo babestutako ertz eta berreskuratu beharreko ertz izendatutako guneak ere.

HIRIGINTZA OSAGAIAREN ARABERA

Aralar Parke Naturaleko ibaiertz gehienak landa eremuko ertz izendatzen ditu LAPak. Amezketako lurretan, espazioaren barruan dagoen Amezketaren errekaren ertzak, aldiz, garatutako eremuetako ertz izendatzen ditu.

Oria Garaia espazioaren ibaiertzetan landa eremuetako ertzak eta garatutako eremuetako ertzak identifikatzen dira.

Araxes espazioaren ibaiertzetan landa eremuetako ertzak identifikatzen dira, Amategi Aldean izan ezik. Inguru hauetan garatutako ibaiertzak identifikatzen dira.

Araxes-Jazkugañe-Basabe haraneko Altzoko lurren ibaiertzak landa eremuko ertz izendatzen ditu LAPak.

Aipatutako eremuetatik kanpo badira landa eremuko ertz eta garatutako eremuetako ertz izendatutako guneak ere.

ARAUDI ESPEZIFIKOA

Aipaturiko ertz mota ezberdinon araudi espezifikoa ondokoa da:

- **Lehentasunezko interes naturalistikoko guneen ertzak:** area hauetan debekatuta daude ingurunearen alterazioa dakarten eragiketak.

Erabilera bultzatuak	Erabilera onargarriak	Erabilera debekatuak
Artapena Ingurugiroaren hobekuntza	Jolas jarduerak Ehiza, arrantza Nekazaritza, negutegiak Abeltzaintza Basogintza Garraiobideak Argindar lineak, uraren ziklo integralarekin erlazionatutako instalazio teknikoak Erabilera publikoko eta gizarte intereseko eraikinak Nekazaritza jarduerari lotutako egoitza erabilera isolatua	Nekazaritza industriak Erauzketa jarduerak Uraren ziklo integralarekin erlaziorik ez duten instalazio teknikoak Zabortegiak Egoitza erabilera isolatua Instalazio arriskutsuak

- **Landaretza egoera onean duten ertzak:** ertz hauetan dagoen landaredia zaindu egin nahi da.

Erabilera bultzatuak	Erabilera onargarriak	Erabilera debekatuak
Artapena Ingurugiroaren hobekuntza	Jolas jarduerak Ehiza, arrantza Nekazaritza, negutegiak Abeltzaintza Basogintza Garraiobideak Erauzketa jarduerak Argindar lineak, instalazio teknikoak Erabilera publikoko eta gizarte intereseko eraikinak Nekazaritza jarduerari lotutako egoitza erabilera isolatua Zuhaitz eta zuhaixken mozketa	Nekazaritza industriak, arrain haztegiak izan ezik Zabortegiak (3 Km2 baino gutxiagoko adar arrodun erreketan izan ezik) Egoitza erabilera isolatua Instalazio arriskutsuak

Erabilera bultzatuak	Erabilera onargarriak	Erabilera debekatuak
	berariazko arloko araudiak aurreikusitako erregimenaren menpekoa izango da	

▪ **Akuiferoen zaurgarritasuneko zonetako ertzak:**

Erabilera bultzatuak	Erabilera onargarriak	Erabilera debekatuak
Artapena Ingurugiroaren hobekuntza	Jolas jarduerak Ehiza, arrantza Nekazaritza, negutegiak Abeltzaintza Basogintza Garraiobideak Erauzketa jarduerak Argindar lineak, instalazio teknikoak Erabilera publikoko eta gizarte intereseko eraikinak Nekazaritza jarduerari lotutako egoitza erabilera isolatua	Nekazaritza industriak, arrain haztegiak izan ezik Zabortegiak Egoitza erabilera isolatua Instalazio arriskutsuak Lurpeko akuiferoak poluitzen dituzten isurkinak

▪ **Berreskuratzeko premia duten ertzak:**

Erabilera bultzatuak	Erabilera onargarriak	Erabilera debekatuak
Artapena Ingurugiroaren hobekuntza	Jolas jarduerak Ehiza, arrantza Nekazaritza, negutegiak Abeltzaintza Basogintza Garraiobideak Erauzketa jarduerak Argindar lineak, instalazio teknikoak Erabilera publikoko eta gizarte intereseko eraikinak Nekazaritza jarduerari lotutako egoitza erabilera isolatua	Nekazaritza industriak, arrain haztegiak izan ezik Zabortegiak (3 Km2 baino gutxiagoko adar arrodun erreketan izan ezik) Egoitza erabilera isolatua Instalazio arriskutsuak

- **Landa eremuko ertzak:** ubidearen bi aldeetako 100 metroko zabalerako bandan lurzoru urbanizaezinak berezko dituen eraikuntzak, jarduerak eta lurzoruaren erabilerak bakarrik ahalbidetuko dira. Ez da trazaduraren alteraziorik, estaldurarik edo errektifikazio artifizialik egingo (uholdeak prebenitzeko edo obra publikoak eraikitzeke eskuartzeak izan ezik).

EUSKAL NEKAZARITZA ANTOLATZEKO PLANA (LAP) AUTONOMI ETA LURRALDEAREN ERKIDEGOKO BASOGINTZA ARLOKO

Hasierako onespren dokumentua.

Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plan honek Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako irizpideak garatzen eta zehazten ditu -"Ingurune Fisikoaren Elementu eta Prozesuei buruzko Artezpide Orokorrak" eta "Ingurumen Fisikoa Antolatzeko Kategoriak" izeneko Epigrafeetakoak hain zuzen ere-.

Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko LAPak **Lur Ez Urbanizagarrietako nekazaritza eta basogintza erabilerak** arautzen ditu bereziki. Babestutako Natur Guneak eta Udal Planeamenduan urbano edo urbanizagarri gisa kalifikatutako eremuak LAP honen Antolamendu eremutik at geratzen dira.

LAP honen helburu nagusienak honakoak dira:

- Egungo landa egoera zehaztu: nekazaritza-jarduerak, ustiategi produktiboenak, uzte-arrisku handiena dutenak...hartzen dituzten eremuen ezagutza sustatu
- Antolamendua landa irizpideetatik planteatuko duen lurralde eredia sortu.
- Leku berean nekazaritza-erabilerekin ustez konbergenteak diren nekazaritzatik kanpoko erabileren aurrean sektorearen defentsa suposatuko duten erreminta juridiko eta Jarduera Tresnak planteatzea
- Landa eta Basogintzarako Plan Estrategiko, Lurraldea Antolatzeko Artezpide eta abarretan bildutako lurraldea antolatzeko eta planifikatzeko artezpide eta irizpideak biltzea.
- Udalerriek onartutako Arau Subsidiarioetako lurra kalifikatzeko irizpide eta kontzeptuak bateratzea, LAPean Lur Urbanizaezinen sailkatze osoa eginez.

- Nekazaritzaren kontserbazioa ingurumenarekin bateratu, administrazio-tresna komunak edo osagarriak zehaztuz (arloaren afekzioa aztertzeke protokoloa).
- Arloko legeriaren aplikazioa erraztu, dauden arloko politika eta arau guztiak txosten bakar batetik koordinatuz.
- LAP honetako emaitzen hedapena segurtatu, lurraldea kudeatzeko eta antolatzeko bestelako txostenetan kontuan har dadin

Kartografia

Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko LAPa Hasieran Onesteko txosten honekin batera, **1:25.000** eskalako Antolamendu Mapen Kartografia eransten da.

Kartografia egiteko jarraitu diren irizpideak (Antolamendu Kategoriak) ondokoak dira:

- **Nekazaritza-abeltzaintza eta Landazabal Kategoria:** Kategoria hau haranen behe aldeetan kokatzen da. Egun sega-belarditarako eta mota guztietako laboreetarako erabiltzen diren eremuak hartzen ditu. Halaber, honelako erabilerek inguratutako baso-unadak, baso-orban handietatik berezitutakoak eta unitate propioa osatzeko beste azalera ez dutenak, kategoria honetan sartzen dira.
 - Balio Estrategiko Handia: eremu hauek produktibitate-ereduen eta lurraldearen ezagutza enpirikoaren arabera definitzen dira.
 - Trantsizioko Landa Eremua: egun landutako gainerako eremuak, edo isurialde kantauriarrean ohikoak diren baso-unadak dituzten larredun landazabalak, aurreko kategorian sartu gabekoak.
- **Baso Kategoria:** kategoria honetan, egun zuhaitzez estalirik dauden eremu guztiak bilduko lirateke.
- **Baso-Mendi Meatsa Kategoria:** egun sastrakadiz estalita dauden eremuak, abeltzaintza-erabilera garrantzitsurik ez dutenak, maldan kokaturik daudenak, baso-unadaz inguraturik daudenak eta erosio-fenomenoen aztarnarik ez dutenak sartzen

dira. Halaber, mendi-hegalen behe aldean edo soro artean dauden luberriak, sastrakadi edota larrez osatutakoak, biltzen ditu.

- **Larre menditarrak Categoria:** azpikategoria honetan sartzen dira, altuera handieneko mendietako larre menditarrak, aprobetxamendu tradizionala eta transterminante motako transhumantzia kulturari lotutakoak.
- **Larre Menditarra-Haitzak Categoria:** arroka agerian duten eremuak eta horma arrokatsuak, mendi-hegaletan eta gailurretan aurki daitezkeenak.
- **Ingurumen Hobekuntza Categoria:** eremu hauetarako irizpide orokorra egungo egoera ekologikoki bilakatuagoak diren egoeretara birbideratuz, ingurumen baldintzen hobekuntza lortzea denez, egungo erabileraren eta natur baliabidearen kontserbazioaren artean arazoak dituzten eremuak sartzen dira bertan (higadura-aztarnak agertzen dira, esaterako). Azken 10 urtetan erabilera definiturik izan ez duten eremuak, eta EAEko mendietako goi eremuetan, nahiz balio ekologiko handiko eremuen inguruetan kokaturik egoteagatik, ekosistema potentziala birgaitzeko bokazioa dutenak ere sartu dira. Categoria honetan sartzen dira, halaber, utzita edo martxan dauden harrobiz eta zabortegiz beteriko eremuak.
- **Azaleko Uren Babes Categoria:** categoria honek EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzekeo LAPak aholkatutako erretiro-mugak bereganatuko ditu.

Honela bada, aipaturiko kartografiak jarraian adierazten den bezala sailkatzen ditu lur ez urbanizagarriak:

Nekazaritza- Abeltzaintza eta Landazabala	Balio Estretegiko Handia Trantsiziozko Landa Paisaia
Mendia	Baso Baso-Mendi Meatsa Larre Menditarrak Larre Menditarrak-Haitzak
Ingurumenaren Hobekuntza	
Azaleko Uren Kontserbazioa	

Aztergai ditugun udalerriei dagokienean aipaturiko kategoria hauek ondoko azalera hartuko lukete:

ABALTZISKETA (11,3 Km²)	Azalera (m²)
Basoa	2.038.270,12
Etxe-lurra; industrialia; ekipamendua eta azpiegiturak. Udalplan 2004	88.672,47
Izendatutako Natu Gune Babestuak eta Urdaibaiko Biosferaren Erretserba	6.038.962,68
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Balio Estrategiko Altua	249.902,11
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Trantsiziozko Landa Paisaia	2.899.907,75

ALTZO (9,8 Km²)	Azalera (m²)
Basoa	6.585.204,31
Etxe-lurra; industrialia; ekipamendua eta azpiegiturak. Udalplan 2004	139.810,40
Ibaiak eta urtegiak	51.456,79
Ingurumen hobekuntza	300.176,67
Larre menditarra- Harkaitzak	58.016,13
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Balio Estrategiko Altua	703.307,99
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Trantsiziozko Landa Paisaia	1.999.484,58

AMEZKETA (20,2 Km²)	Azalera (m²)
Basoa	5.646.927,41
Etxe-lurra; industrialia; ekipamendua eta azpiegiturak. Udalplan 2004	210.260,72
Izendatutako Natu Gune Babestuak eta Urdaibaiko Biosferaren Erretserba	9.553.266,83
Nekazaritza- abeltzaintza eremua: Balio Estrategiko Altua	491.424,09
Nekazaritza- abeltzaintza eremua: Trantsiziozko Landa Paisaia	4.281.533,86

BALIARRAIN (2,8 Km²)	Azalera (m²)
Basoa	1.380.638,27
Etxe-lurra; industrialia; ekipamendua eta azpiegiturak. Udalplan 2004	40.506,77
Nekazaritza- abeltzaintza eremua: Balio Estrategiko Altua	441.493,38
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Trantsiziozko Landa Paisaia	986.015,97

IKAZTEGIETA (2,0 Km²)	Azalera (m²)
Basoa	704.283,98
Etxe-lurra; industrialia; ekipamendua eta azpiegiturak. Udalplan 2004	183.568,41
Ibaia eta urtegiak	5.500,85

IKAZTEGIETA (2,0 Km²)	Azalera (m²)
Nekazaritza- abeltzaintza eremua: Balio Estrategiko Altua	365.565,71
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Trantsiziozko Landa Paisaia	761.433,82

ORENDAIN (6,4 Km²)	Azalera (m²)
Basoa	3.836.552,26
Etxe-lurra; industrialia; ekipamendua eta azpiegiturak. Udalplan 2004	68.636,79
Nekazaritza- abeltzaintza eremua: Balio Estrategiko Altua	720.392,22
Nekazaritza- abeltzaintza eremua: Trantsiziozko Landa Paisaia	1.758.350,85

EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOKO TRENBIDEEN AZPIEGITURA ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA (LAP)

41/2001 DEKRETUAK, otsailaren 27koa, behin betiko onetsia.

Lurralde Arloko Plan honetan agertzen den planteamendu estrategikoa errepideko pilaketen areagotzea dela eta sortuko diren ondorioen aurrean trenbidearen aukera etorkizuneko nahitaezko baliabidea izatean oinarritzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralderean Antolamendurako Artezpideetan (LAA) jasotzen denaren egokitasuna baieztatuz Euskal Autonomi Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurralde Arloko Planak (LAP) hainbat motatako jarduketak biltzen ditu Trenbide Sare Berria eta Lehenagotik Dagoen Trenbide Sareari dagokionean.

Aipaturiko jarduketok aztergai ditugun udalerrietan eragin zuzenik ez duten arren, jarraian Toloserriko Eskualde Egiturari dagokionean LAP honetan jasotzen diren jarduketa nagusiak adierazten dira:

- Trenbide berria
- Lehenagotik dagoen trenbide sarea

Trenbide berria

NAZIOARTEKO ZABALERA DUEN (UIC) IBILBIDE LUZEKO TRENBIDE SARE BERRIA ("EUSKAL Y")

Europako sarearekin lotuko litzatekeen nazioarteko zabaleradun (UIC) Trenbide Sare Berria da LAP honek egiten duen proposamen nagusia. Sare berri hau bidaiariak zein salgaiak garraiatzeko diseinatuta dago.

Trenbide sare honetako Gasteiz-Irun Lineak Toloserriko Eskualde Egitura hego-mendebaldetik ipar-ekialdera zeharkatuko luke, Beasain eta Tolosa artean Ebroko Lotura koka litekeelarik (alternatiba ezberdinak).

Ezkio-Itsason Goierri eta Toloserriko Eskualde Egituretako bidaiarientzako geltokia koka liteke.

Toloserriko Eskualde Egiturari dagokionean trenbide honek **Ikaztegieta**, Alegia, Tolosa, Hernialde, Anoeta, Asteasu, Zizurkil, Aduna eta Andoain zeharkatuko lituzke.

Inguru honetan jatorrizko trazadurak aldaera bat jasan du aurkeztutako bi alegazio kontutan izanik -bata Aduna eta Zizurkilgo Udalek aurkeztua eta bestea Andoaingoak-. Alegazio hauen bidez trazadura ipar-mendebalderantz eramatea proposatu zen, trenbidea Adunako hirigunetik aldentuz eta Oria ibaiaren eta N-I errepidearen gaineko bidezubiaren kokapen egokiagoa bilatuz (hala, hirigunearan ikus inpaktu txikiagoa izan dezan).

Lehenagotik dagoen trenbide sarea

LAPak Aldirikoen Sarea oso garrantzitsutzat jotzen du, EAEko Eskualde Egiturak lotzeko korridoreetan bidaia kopuru handiak bideratzeko egokiena dela adierazten delarik.

Lehenagotik dauden azpiegitura eta instalazioak berritu eta behar diren zabalkuntzak eta hobekuntzak sustatuz, trenbide zerbitzu egokia lortzea finkatzen dira helburutzat.

Honela, gaur egun eskaintzen diren zerbitzu lineetan oinarritutako aldiriko korridoreak proposatzen dira LAPean. Toloserriko Eskualde Egiturari dagokionean Donostia-Zumarraga Korridorea (B2.) proposatzen da: Zabalera iberiarreko sarearen bitartez, Goierri eta Donostiako Eskualde Egiturak lotzen dituen korridorea.

Helburu gisa korridoreetako tartek indartzea proposatzen da. Ibilbide luzeko zerbitzua beste korridore desberdin batetik egiteak aldiriko zerbitzuak maiztasun handiko garraio bide bilakatu eta kalitatea erruz hobetzea ahalbidetuko duela adierazten da.

TOLOSERRIKO EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANA (LZP)

Aurrerapen dokumentua da, eta irizpide, helburu eta soluzio orokorrak lantzeko faseari dagokio.

LZPren Aurrerapen honek lurralde antolamenduaren irizpide, helburu eta soluzio orokorrak hartzen ditu bere baitan. Biltzen dituen zehaztapenak, maiatzaren 31ko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legearen 12. artikuluan adierazten direnak dira, eta bere funtzioa LAAetako eredia eremu funtzionalaren mailan garatzea da.

Toloserriko Eremu Funtziona antolatzeko proposamenak 16 urterako aurreikusitako garapenean oinarrituta ezartzen dira.

Eremu Funtzionala 28 udalerrik osatzen dute: **Abaltzisketa**, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, **Altzo**, **Amezket**a, Anoeta, Asteasu, **Baliarrain**, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, **Ikaztegieta**, Irura, Larraul, Leaburu- Txarama, Lizartza, **Orendain**, Oresa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil.

Lurraldearen % 90 baina gehiago espazio nabarmenki **landatarra** da, eta lehen sektoreko jarduerak oinarri ekonomikoaren osagai garrantzitsua dira oraindik ere, baserriak delarik lurralde honen kudeatzailea.

Lurralde ereduaren edukiak:

- Ingurune fisikoa
- Kokalekuak
- Azpiegiturak

Ingurune fisikoa

HELBURU ETA IRIZPIDEAK

- Espazio natural interesgarrien benetako babesa ziurtatzea.

- Bertako baso masa handiak babestea eta zabal daitezen bultzatzea.
- Baso hostoerorkorreko azalera gehi dadin sustatzea, eta desagertzeko arriskuan dauden espezieen kudeaketa- planak bultzatzea.
- Higidura arriskua dagoen eremuetan landaredi-estaldura mantendu eta/edo hobetzea, eta eragin negatiboa duten jarduerak bertan kokatzen saihestea.
- Urbazterreko ekosistemen kalitatea hobetzea eta/edo mantentzea.
- Akuiferoen kalitateari eustea eta horien gain-ustiapena saihestea
- Harreman-ahalmenarekin bateraezinak diren jarduerak degradatutako lurzorua birsor daitezen sustatzea.
- Paisaia-multzo baliotsuak eta kultura-ondarea babestea.
- Baliabide naturalen aktibazioa erraztea.
- Jolas-erabilera eta turismoa modu antolatuan sustatzea.

ANTOLAMENDU EREDUA

- Babestu beharreko eremuak:
 - Espazio natural babestuak: **Aralarko Parke Naturala**, Leitzarango Biotopoa eta Albizturgo Douglas izeia eta **Altzoko pagoa** zuhaitz apartekoak.
 - Natura 2000 Sarea: Ernio-Gazume, **Oria ibaia** eta, **Araxes ibaia eta urbazterrak**.
 - Interes naturalistikoko eremuak eta beste enklabe interesgarri batzuk: **Jazkugañe eta Basabe eremuak**, Murumendi eta Atxulondo Abaloz.
 - Interes geologikoko eremuak: **Aralar**, Ernio-Gazume.
 - Interes geologikoko guneak.
 - Interes arkeologikoko guneak.
 - Haitzuloak.
 - Nekazaritza- eta/edo ingurumen-intereseko eremuak: Zizurkil eta Elizmendi guneen artean dagoen esparrua, Berastegik, Aintzergako eta Bidania-Goiatzeko haran

garaiak, **Altzoko sakonunea, Amezket**a eta Bedaioko **ibarrak, Orendain eta Abaltzisketa arteko muinoak eta mazelak**.

- Interes hidrologikoko eremuak.
- Hobetu eta/edo leheneratu beharreko eremuak
 - Erabiltzen ez diren meategiak, harrobiak eta zabortegiak.
 - Kokapen topografiko berezietako baso naturalak.
 - Baso- kontserbazioko eremuak.
- Korridore ekologikoen sarea (diseinatzeko):
 - **Aralar- Jazkugañe- Leitzaran korridorea**.
 - Murumendi- Ernio- Pagoeta korridorea.
 - Gainerako korridoreak.

Kokalekuak: hirien sistema, hiriguneak eta landa eremuak

MAILAK

- Buruntza- sistemaren hiriguneak: Tolosa- Ibarra eta Villabona- Zizurkil.
- Tamaina ertaineko udalerrietako guneak: Asteasu, Anoeta, Irura, Alegia, **Ikaztegieta, Amezket**a, Berrobi eta Lizartza.
- Landa- esparruetako guneak: eremu funtzionala osatzen duten gainontzeko udalerriak, besteak beste, **Abaltzisketa, Altzo, Baliarrain** eta **Orendain**.

BIZITEGI LURZORUA

- Irizpideak eta helburuak:
 - Tamaina ertaineko udalerrietako guneak: ekimenak hazkunde endogenoa konpontzera bideratuko dira, hiriguneak formalizatu, egituratu eta finkatuz, eta bertan garapen gehigarri txikiak integratuz.
 - Landa-esparruetako guneak: biztanleriaren banaketa orekatuagoa defendatzen duen lurralde estrategiaren parte

izango dira, eremu urbanizatuenetako eskaintzaren ordezkoko bizitegi-eskaintzaren bitartez. Eremu funtzionaleko esparru dentsifikatuenetatik hurbil daudenez, Aduna, **Altzo**, Belauntza, Leaburu eta Hernialdeko gunek hiri-eremuen ordezkoko habitataren eskaintza garatzeko bereziki egokitzat jotzen dira.

JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA

Bozue Udaltalde 21 osatzen duten udalerriak ez dira lurralde-ereduaren konfigurazio eta garapen integralerako esparru estrategikotzat jotzen.

UDALAZ GAINDIKO EKIPAMENDUAK ETA ESPAZIO LIBREK

- Hiri-ekipamenduak
- Landa eremuetako eta ingurune naturaleko ekipamendu eta azpiegiturak: hobetzeko ekintzak hotel-eskaintza areagotzea eta espezializatzea, ibilbide eta oinezkoentzako ibilaldi berriak sortzea, dauden ibilbideak hobetzea eta seinalizatzea eta aisialdi-eremuak handiagotzea lirateke.
- Ingurune naturaleko beste ekipamendu batzuk:
 - Lurralterako sarreraguneetako ekipamendu bereziak: Alkiza, Bidania- Goiatz, Berastegi, **Amezket**a eta **Abaltzisketa**.
 - Lurralterako sarreragune berezietako azpiegitura bigunak: Urto, **Amezket**a- **San Martin**, Bidania- Errezil eta Andazarretan daudenak.
 - Bainu, aisia eta atsedenerako eremuak: hainbat aukera planteatzen dira Bidania- Goiatz eta **Amezket**ako **inguruetan**.

Sistema erlazionala

GARRAIO PUBLIKOA

Trenbide- sare berriak ez du geltokirik aurreikusten eskualdean. Hala ere proposatutako trenbide-sare berria zati handi batean tunelpean igarotzen da Oria ibaiaren ezkerretatik.

BIDE SAREA

Besteak beste honako ekintzak hartuko ditu baitan:

- "Hiri- zentraltasuneko ardatz" izendatzen direnak egitura antolatzen duten oinarritzko elementutzat jotzea.
 - Ardatzak: besteak beste **Ikaztegieta**ko zeharbidea.
- "Hiri arteko artikulazio ardatz" izendatzen direnak konexio bide-elementutzat jotzea.
 - Ardatzak: besteak beste **Alegia- Ikaztegieta** eta **Ikaztegieta- Legorreta**.
- Ingurune naturaleko landa-bideen eta oinezko ibilbideen sare kapilarra sortzea, lurralderako irisgarritasun eta erlaziorako sare erabilgarria osatuz.

Oinarritzko azpiegiturak

SANEAMENDUA

Ekintzak hondakin-uren araztegi bat eta dagozkion kolektore nagusien sarea eta haur egungo sareekiko konexioak egitera bideratu behar dira.

Araztegia kokatzeko arazoa lurzoru-erabilgarritasun urrian datza. Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatutako soluzioak Adunako ibar hutsaren iparraldean kokatzea aurreikusten du. Hala ere dokumentu honetan Adunatik edo Sorabillatik uretan behera kokatzea hobesten du.

UR-HORNIDURA

Baliarrain eta Orendain artean dagoen IBIURko urtegiaren bidez, batez ere, egiten da edateko uraren hornidura.

HONDAKIN SOLIDOAK

Gaur egun Tolosaldeak ez du isurketarako bere azpiegiturari, eta premiak Goierriko Sasieta zabortegeari esker estaltzen dira.

ELEKTRIZITATE AZPIEGITURAK

Parke eolikoak Mandoegiko gailurretan eta Gazume inguruan instalatzea aurreikusten da.

GAS AZPIEGITURA

Bergara- Irun gasbideak Oria ibaiaren haranaren ekialdeko goialdea du oinarri, eta Altzon, Belauntzan eta Villabonan ditu erregulazio-estazioak.

TELEKOMUNIKAZIOAK

- Honako jardunak planteatzen dira:
 - Eremu funtzionaleko burutza guztien arteko zuntz optiko bidezko konexioa erdiestea.
 - Zentral digitalak indartzea.
 - EAEko erabateko estaldura lortzeko antenak kokatzea.

Arau Subsidiarioak

IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK.

ALTZOKO HIRI ANTOLAKETAKO ARAUEN TESTU BATERATUA.
(2001ko otsailak 12an argitaratua). Arkitektoa Juan Jose Arrizabalaga.

Ondorengo helburuekin definitzen dira Altzoko arau subsidiarioak:

- Etxebizitzak eskaintzea eskatutako ezaugarri eta prestazioekin bat etorriz, biztanleen etengabeko zahartzea etetearren eskura dauden baliabide guztiak erabiliz.
- Kontsumo eta errenta mailak mantentzea eta handitzea, udalerriko jarduera propioak garatzearen lurzorua antolatu, kudeatu eta landuz.
- Bizitzaren kalitatea mantentzea eta hobetzea, ekipamenduak sendotuz eta aisialdia eta naturarekin lotuta dauden olgetarako beste osagaiak sustatuz.
- Landa-lurra babestea, basoa, nekazaritza eta abeltzaintza lantzeko erabili ohi denez, halako jarduerak arautu eta ustiaketetan ari direnen bizigarritasun baldintzak erraztearen. Era horretan, aurretikako eraikinak lehenartzeko asmoa duten jarduera berriak gauzatzeko aukera eskaintzen da, egungo ingurugiroaren kalitatearen baldintzak mantenduz, horretaz gozatu ahal izateko arauak finkatuz eta lurraldea bera ezinbesteko osagaitzat hartuz, udalerriko jarduera ekonomikoen aniztasuna bermatuko duen osagaia baita.
- Hiri lurrari buruzko xedapen guztiak zehaztasun osoz mugatzea, hemendik aurrera etxebizitzak eta jarduera ekonomikoak ezartzearen, merkatuan lur nahikoa jartzeko beharrezkoak diren izapideak garatzean kudeaketa eta hiritartze lanak bakarrik gauza daitezen, etxebizitza berriren bat babes ofizialeko bizitegitzat hartzeko aukera aztertuz.
- Hirigunearen hedapen lineala etetea, egun dauden guneak indartuz eta paisaia eta ingurugiroa direla eta bere horretan mantentzea merezi duten lur hiritarra garatu beharreko ekimenak baztertuz.
- Udalari legezko oinarri arauemailea eskainiko dioten xedapenak finkatzea, etorkizunean Arterrekako harrobiaren ustiaketaren garapena arautua bideratzeko aukera izan dezan.

- Lur Hiritarezinean ezin izango da inolaz ere famili bakar batentzako etxebizitza isolatua eraiki, baldin eta ez bada zehaztasun osoz argitzen eraikin hori abeltzaintza eta nekazaritza baliabideen ustia ketarekin lotuta dagoela, edo aurretikako landa-gunean antolaketa osatzen ez badu.
- Kultura ondorea zaintzeko helburu zehatza dago, batez ere ondare arkitektoniko eta arkeologikoa.
- Era berean, naturaren ezaugarri direla eta, arreta berezia merezi duten eremuen zerrenda irekia osatzen da, esaterako, Araxes-Jazkugañe eta Basabe bailara, bertako landaretzak balio handia baitauka. Altzoko udalerrian ere eremu horren barruan kokatzen da.

ALTZOKO 11. ETA 12. JARDUN UNITATEEI DAGOKIEN HIRI ANTOLAKETAKO ARAUEN ALDAKETA, IRAKASKUNTZAKO GIZARTE EKIPAMENDUKO SISTEMA OROKORRERAKO EREMU BERRIA SORTZEKO

(Behin betikoa 24-12-2001an onartua, Arkitektura estudioa CB eginak).

Aldaketa honek lur hiritargarria sortzea dakar. Eraiki behar duten eskola ekipamenduak 600m² gehiago izango ditu. Ekipamendua honela geldituko litzateke :Erdisotoa, sestra gaineko bi solairu eta teilatu azpia.

ALTZOKO HIRI ANTOLAMENDUKO ARAUEN 2. ALDAKETA:ORDENANTZEN 11. ETA 91. ARTIKULUEN ALDAKETA

(2002ko irailen Arkitektura estudioa C.B egina).

Aldaketa honen helburua plan bereziaren aurrerapenak proposaturiko eraikuntzari buruzko arauak ahalbidetzeko beharrezkoak diren aldaketak egitea da. Honetarako 11 eta 91. artikuluen edukia aldatzea proposatzen da dokumentu honetan. Honetaz gain, indarrean dauden arauak etxebizitza erabilera soilik duten eraikuntzak ordenazioz kanpo planteatzen ditu Nekazaritza eta Paisaia babesteko lurzoru hiritarrezinean. Aldaketa honek eraikin hauek kontsolidatu egiten ditu erabilera onartuz.

ALTZOKO HIRI ANTOLAMENDUKO ARAUEN 3. ALDAKETA: LANDETXEAK ETA ABELTZAINZAKO USTIAKETA TRINKOAK

ETA LURRALDEAREN USTIAKETAREKIN LOTURARIK GABEKO NEKAZARITZA INDUSTRIAK INSTALATZEKO ARAUDIA

(Altzon 2005ean Arkitektura estudioa C.B egina).

Azken urte hauetan , zerrategiak instalatzeko bi kontsulta jaso dira Udal honetan. Bi kasuetan ezetza izan da erantzuna arauetako hainbat baldintza hausten zirela eta (tarteak, kalifikazioa, eta abar). Bestalde, izan dira ere hainbat kontsulta ukuiluak ipintzeko, batzuen erantzuna ere ezezkoa izan da hauen artean, gutxiengo tarteak betetzea ezinezkoa suertatzen baitzen.

Egun, instalazio horien ezarkuntza erraztea da udal honen borondatea. Dokumentu honen helburua azken hau betetzea da. Honetarako 9.artikulua (hirigintzako erabileran edukia , bere 9.2. puntuan). 72. artikulua (landetxeak, eta abeltzaintzako ustiaketa trinkoak) eta 75. artikulua (lurraldearen ustiaketaekin loturarik gabeko nekazaritza industria) eduki aldatzea proposatzen du dokumentu honek.

Lur zoruaren erabilera

	2001eko otsailaren 12an Arauen berrikuspena	Arau subsidiarioen elementuan aldaketa 2001 martxoan
HIRI LURRA (m²)	91.200	91.200
LUR HIRITARGARRIA (m²)	0	4.600
LUR HIRITAR EZINA (m²)	9.708.800	9.704.00
GUZTIRA (m²)	9.800.000	9.800.000
Hiri lurra/azalera totala	0,0093	0,0093
Lur hiritargarría	-	0,0004
Lur hiritar ezina/azalera totala	0,9906	0,9902
Iturria: Udala		

Hazkundearen aurreikuspenak

Hirigintza Eragiketa Eremua	Azalera (m2)	Kalifikazioa	Gehienezko etxebizitza kopurua	Kanpoaldeko aparkalekuen gutxienezko kopurua	Gaur egungo egoera
ETXE BIZITZEI DAGOZKION LUR SAILAK					
1.J.U.	1.524	Egoitzarako eraikuntza irekia	4	2	Eraikita
2.J.U.	1.563	Egoitzarako eraikuntza irekia Sustapen publikoko etxebizitzak eraikitzeko lurrak	4	2	Eraikita
3.J.U	707	Egoitzarako eraikuntza irekia Babes Ofizialeko etxebizitzak	4		Eraikita
4.J.U	806	Egoitzarako eraikuntza irekia	4	5	Eraikita
5.J.U	3.142	Egoitzarako eraikuntza irekia	6	6	Eraikita
6.J.U	763,34	Egoitzarako eraikuntza irekia	4		Eraikita
7.J.U	2.381,10	Egoitzarako eraikuntza	2	19	Eraikita
Altzo Azpin					
8.J.U	953,27	Seroretxea bota eta egoitzarako eraikuntza irekia.	4	4	Eraikitzeko daude
Ekipamendurako lursailak					
11.J.U	1.521,76	Erkidegoaren ekipamendua	1		
12.J.U	639,23	Erkidegoaren ekipamendua (eskola)	1		Eraikita

ETXEBIZITZA LURZORUAREN EBOLUZIOAREN AURREIKUSPENAK.

Arau Subsidiarioetan etxe berriak eraikitzeko lurren aurreikuspena egin zen. Proposatutako etxebizitza gehienak Altzo Muinoko hirigunean kokatzen dira.

Aipatutako eraikin guztiek etxebizitzei egokitutako garajeak izango dituzte Garaje horiek, eta kontuan lurra azalearen ezaugarri, sotoan edo erdisotoan kokatuta egongo dira.

Hiru hirigune daude:

Altzo Muino	0,49 Ha
Altzo Azpi	0 Ha
Amategialdea	1,58 Ha

INDUSTRIA LURZORUAREN EBOLUZIOAREN AURREIKUSPENAK.

9.J.U. Industriako lursaila jada garatu den eremuan kokatua, bertan aurreko Arauetan finkatzen zen pabiloiaren handitzea mantentzen delarik.

10.J.U. (txarama iparraldean) Eremuaren berrantolaketa proposatzen da bide sarea garatuz, azalera ezberdina izango duten pabiloiak burutzeko aukera izan dadin.

EKIPAMENDU BEREZIETARA BIDERATUTAKO LURZORUAREN EBOLUZIOAREN AURREIKUSPENAK.

Hirigintzako eremua	Azalera(m ²)	Ekipamendurako lursailak	Erakin kopurua	Gaur egungo egoera
11.J.U	1.521,76	Erkidegoaren ekipamendua	1	Eraikita
12.J.U	639,23	Erkidegoaren ekipamendua (eskola)	1	Eraikita

11.J.U (Zialtzetako Bidea) Santa Barbara doan bidearen espaloia eta galtzada zabaltzeko asmoa dago.

12.J.U. (Santa Barbaran) eskola ekipamendua eraikina egitea aurre ikusten da.

Antolaketa berriarekin hiru lursail berri egokitzen dira ekipamendu berriak kokatzeko, une honetan eskola berriaren eraikuntza delarik lehentasun osoa duen ekipamendua.

Bestelako ekipamenduak Altzo Azpin ditugu eta bertan biltzen dira Salbatzailearen eliza, Zuaznabarreko aldean Karmeldarren komentuko frontoia, jendeari irekita dagoena eta Belaiko hilerria.

BERDEGUNE ETA AISIALDI-GUNEEN EBOLUZIOAREN AURREIKUSPENAK.

Gaur egun ezin daiteke Altzon parke publikorik dagoenik. Hala ere badira lorategi antzeko hainbat esparru, esaterako, Altzo Muino Apezetxearen ingurukoa, berau jolaserako mugatu delarik.

Lurzoru ez-urbanizagarriaren tratamendua

(Deskribapen laburra, zonakatzea: kategoria zerrenda, eraikigarritasuna, udal esku-hartze maila).

Altzoko azaleraren %99 lurzoru hiritarrezinak osatzen du.

Lur hiritar ezinean honako sail hauek bereiz ditzakegu:

- Babes bereziko Lur Hiritarrezina: LAAekin bat eginez, ekologia, kultura, paisaia edo horiek denak batera aintzat baliagarriak gerta daitezkeen osagaiei aplikatzen zaio. Zentzu horretan, Altzoko udalerriri dagokionez, Araxes-Jazkugañe Basbe bailara sail honetan sartzen dira naturaren aldetik duen baliogatik. Harrobi aldera ere lur mota hau ageri da. Azkarateko galtzada babesteko, 45 metroko lur zerrenda bat dago harrobiaren inguruan.
- Sistema Orokorarentzako Lur hiritarrezina berauek ezartzeko gordeko da, baita horien inguruan beharrezkoak diren babesguneak ere.
 - Errepideak eta babesguneak: errepide nagusitzat jotzen dira Alegiako saihebiderearen zati, udalerrian sartzen dena, GI-3620 errepidea, Errota bidegurutzearan hasi, Altzo Muino zeharkatu eta Amategialdearaino ailegatzen dena, eta aipatutako bi bideak lotzen dituen GI-3071, Altzo Azpin hasita.
 - Landa bideak eta babesguneak: sail honen barruan, landa bide nagusiak bi hauek dira: Altzo Muino eta Santa Barbara lotzen dituen errepidea, eta Arterrekako harrobia eta Ollaungo errepetidorea lotzen dituen bide zatiak.
 - Ubide publiko eta babesguneak: Udalerriko ibai eta errekek osatzen dituzte:
 - Oria ibaia
 - Araxes ibaia
 - Arterreka erreka
 - Irisoroko erreka
 - Landartegi erreka.

- Trenbide eta horren babesguneak: tren-sareari dagokion zatia RENFERen trenbidea litzateke; udalerrri Galtzadaburun zeharkatzen du, bertan inolako geltokirik ez badago ere eta aplika daitekeen legeria betetzen du.
- Nekazaritzarako Lurrak babesteko Lur hiritarrezina: lur horiek nekazaritzan erabilerako oso aproposak dira, sail hauek "Gipuzkoako Nekazaritza motak" eta Gipuzkoako nekazaritzarako lurrak babesteko irizpideak" Altzoko udalerriarekin bat datoz.
- Arterrekako harrobia: estalperik gabeko ustiaketan esparru hauek bereiz ditzakegu:
 - Harrobia bera eta horren ingurua.
 - Ustiaketarekin zerikusia duten instalazioak, besteak beste, karea eta hormigoia egiteko lantegia, zerbitzu eta bulegoen eraikin nagusia, makinaria gordetzeko biltegia, zinta garraiatzailea eta materiala biltzeko guneak, zerbitzuen azpiegiturako eraikinak, baskulak ,eta abar...
- Galtzadaburu zentrala: IBERDROLAren azpiestazioaren ingurua da. N-1 errepidearen bidegurutzearen ondoan kokatua, eta bertan egungo instalazioak indartzen dira. Ingurua alor hori dagozkion legen bitartez arautuko da, dokumentu honetan ezaugarri horietako instalazio bati eska diezazkiokegun hirigintzako kontrola eta antolamendurako tresnak finkatzen direlarik.

Gauza daitezken eraikinak honakoak dira:

- Basozaintza, nekazaritza edo abeltzaintzarekin zerikusia duten eraikinak edo instalazioak, honako hauek barne; baserriak, landetxeak, berotegiak, txabolak eta zerrategiak.
- Zorupeko baliabideak ustiatzeko burutu diren eraikin edo instalazioak, esaterako, harrobiak, meategiak eta abar. Hala ere sail hau guztia Arterrekako harrobiak baldintzatzen du.
- Lan publikoak gauzatu, mantendu eta eskaintzeko beharrezkoak gertatzen diren eraikinak eta instalazioak.
- Gizartearentzat eta jendearentzat interesa izan dezaketen eraikinak eta instalazioak, administrazioak sustatuak eta landa ingurunean kokatu beharrekoak.

- Bestelako eraikinak, esaterako, aterpetxeak, landa turismoa, hotelak, kanpinak etab.

Landa eremuko lurren erabilera:

- Nekazaritza.
- Berotegiak.
- Abeltzaintza.
- Basoak.
- Nekazaritza industria.
- Erauzketa jarduerak.

ONDARE HISTORIKO- ARKITEKTONIKO ETA ARKEOLOGIKOA.

Altzoko Hiri Antolamenduko arauetan ondoren datorren elementu katalogatuen zerrenda ageri da:

- Arretxe Baserria.
- Zuaznabar Haundi Baserria.
- Legarre Baserria.
- Etxeberri Baserria.
- Iriarte Baserria.
- San Salvador Eliza.
- Andra Mariaren Jasokundearen Eliza.
- Santa Barbarako Ermita.
- Zuaznabar Barrena Baserria.
- Jauregi Baserria.
- Oiarbide Baserria.
- Goikoetxe Baserria.
- San Salvador Behekoa Errota.
- Apaiz Etxea.
- Iartza Etxea.
- Udaletxea (Altzo Muino).
- Jauregi Goena (Altzo Muino).
- Oregi Baserria (Altzo Muino-Txarama).
- «Imazon Pagoa» Zuhaitza (Altzo Muino).
- Otsegi Baserria (Altzo Muino).
- Aizpe Baserria (Altzo Muino).
- Lizarribar Baserria (Altzo Muino).
- —Borda Baserria (Altzo Azpi).

- Altzo Azpiko Apaiz Etxea (Altzo Azpi).
- «Konde Errota» errota (Altzo Azpi).
- Ipintza Haundi Baserria (Altzo Azpi).
- Artzadun Baserria «Domingorena» (Altzo Muino).
- Mendizabal Baserria (Altzo Muino).
- Zialtzeta Baserria (Altzo Muino).
- «Altzoko Errota» errota.
- Aizpe Baserriaren ondoko Iturria (Altzo Muino).
- «Errota Txiki» errota (Altzo Azpi).
- Olazabal Haundi Baserria (Altzo Azpi).
- «Iturri Zaharra» iturria (Altzo Azpi).
- Arrieskalleta galtzada.
- Pagoaundi (Tumulua).

Tolosaldeako Landa Garapen Programa

TOLOSALDEAKO LANDA GARAPEN PROGRAMA

22/2003 DEKRETUA, otsailaren 4koa, honako eskualde hauen landa garapeneko programak onartu dituena: Arratia- Nerbioi, Enkarterriak, Tolosaldea, Urola- Kosta, Aiara, Gorbeialdea, Arabako Lautada, Arabako Mendialdea, Arabako Errioxa eta Arabako Haranak.

Erreferentziak:

- Landa Ingurunearen Garapenerako apirilaren 8ko 10/1998 Legea.
- Landa Garapeneko Elkarteen aitortpena (158/2002 Dekretua, EHAA, 129.zk., 2002ko uztailaren 9koa).

Arloak:

- Nekazaritza eta Basogintza.
- Ekonomia sarea dibertsifikatu eta lana sortu.
- Turismoa.
- Hezkuntza eta kultura.
- Osasuna.
- Etxebizitza.
- Azpiegiturak.
- Lurralde-antolamendua.
- Ingurumena.

Aurretikoak

Egoeraren diagnostikoa (MENDIKOI, S.A. Programa de Desarrollo Rural de Tolosaldea y Urola-Kosta. Resumen del Diagnóstico de Situación).

Ondoren jasotzen direnak, Egoeraren Diagnostikoaren Laburpenean Abaltzisketa, Altzo, Amezketak, Baliarrain eta Orendaini erreferentzia egiten dioten testuak dira. Ikaztegiari buruzko diagnostikorik ez

zen egin, ez zelako egin zen zonifikazioan sartu. Hala ere, jardueraplanak definitzerakoan, 6 herriak hartzen dira kontuan.

ZONA 2

- *ACTIVIDAD AGRARIA/GANADERA especialmente en **Baliarrain**.*
- *POTENCIAL TURÍSTICO (Parque Natural de Aralar).*
- *ACTIVIDAD INDUSTRIAL centrada en los municipios de **Amezqueta y Altzo**.*

Municipio	Población 1975	Población 1996	Descenso (%)
ABALTZISKETA	359	259	-28,0
AMEZKETA	1220	995	-17,6
ALTZO	359	156	-8,23
BALIARRAIN	170 (1993)	94	-5,05
ORENDAIN	184 (1986)	156	-15,2
BEDAIO (Tolosa)	-	-	-

EJE DE REFERENCIA: Carretera Comarcal GI-2633.

*Zona amenazada por el despoblamiento en los últimos años que ha afectado, especialmente a **Abaltzisketa**.*

El fuerte abandono de los caseríos y por tanto de los terreno en los que se ubican amenazan con un fuerte deterioro del entorno.

*En relación a los municipios más pequeños, **Baliarrain**, se caracteriza por el alto sentimiento de pertenencia al pueblo que muestran tener sus habitantes a diferencia de **Orendain** donde las relaciones sociales entre los habitantes del municipio son muy escasas no compartiendo un sentimiento de pertenencia al municipio.*

***Baliarrain** y Bedaio presentan problemas de accesibilidad y lejanía.*

Existe cierto sentimiento subcomarcal que necesita ser potenciado.

*Vivienda: elevado número de viviendas vacías, principalmente caseríos. Previsión de construcción de viviendas en **Amezqueta, Altzo, Abaltzisketa, Baliarrain y Orendain**.*

Equipamientos y Servicios:

- *Comercio: inexistente salvo en **Amezket**.*
- *Alojamiento y restauración: agroturismos en **Amezket** y **Abaltzisketa**. Establecimientos de restauración en todos los municipios con especial concentración en **Amezket**. Problemas de alojamiento dada la potencialidad turística de la zona.*
- *Enseñanza Infantil y Primaria: centro escolar en **Amezket** y **Altzo**. Los niños de Baliarrain acuden a Ikaztegieta, los de Orendain a Alegia y los de Abaltzisketa a Amezket.*
- *Equipamiento socio-sanitario: dos centros periféricos en **Amezket** y un Consultorio en Alegia. Farmacia en **Amezket**. Los servicios socio asistenciales dirigidos a la tercera edad o a las mujeres, los desarrolla individualmente cada municipio apreciándose grandes deficiencias para atender a la demanda.*
- *Infraestructura deportiva y cultural: en general, resulta insuficiente. Los pocos grupos culturales y asociaciones deportivas se concentran en **Amezket** donde además la infraestructura deportiva se considera suficiente.*
- *Otros: ausencia de servicios financieros (salvo en **Amezket**), cajero automático, cabinas telefónicas, etc.*

Recursos: proximidad al Parque Natural de Aralar; elementos de interés cultural-histórico-arquitectónico.

Líneas de actuación en la ZONA 2:

- *Reactivar la vida social a través del desarrollo de la vivienda y creación de puestos de trabajo en la zona, potenciando el sentimiento subcomarcal.*
- *Potenciar la actividad industrial en **Amezket** (sin perjuicio de que se creen puestos de trabajo en el **resto de municipios** de la zona).*
- *Promover centros de teletrabajo.*

**TOLOSALDEKO
PROGRAMA****LANDA****GARAPEN**

Programa, Landa Garapeneko Legearen I. eranskinean 5b Helburu kalifikatzen diren herrietarako da, baina baita 5b Helburu kalifikatuak izan ez diren arren, ezaugarri berdintsuak dituzten zenbait herrietarako ere. Bozue Udaltalde 21 osatzen duten 6 udalerrietatik, inork ez zuen 5b kalifikazioa jaso baina guztiak ezaugarri berdintsuak dituzten herri bezala onartzen dira programan.

Jarrain aztertzen dituen arloak eta jarraitzen dituen ildoak jasotzen dira.

NEKAZARITZA ETA BASOGINTZA

- Nekazaritza nahiz basogintza landa eremuko ekonomiaren euskarri dira, eta betidanik izan duten eginkizun hori bultzatu egin behar da -mendiei buruzko Foru Arauen barne-, horrela lortuko baita, alde batetik, gutxiegi erabiltzen diren lursailei eta natur baliabideei denen artean garbi eusteaz gain, dagokien etekina ateratzea eta, ondorioz, bestaldetik, lurraldea egoki antolatzea.
- Lehen sektore honetako enpresak merkatuan lehiatzeko duten gaitasuna hobetu egin behar da; horretarako, produktuak duten kalitateagatik ezagutu behar ditu jendeak eta ekoizpenei nahiz ekoizpen-kostuei ahalik eta etekin onena ateratzeko moduko promozioa egin behar da. Lehiakortasun hori hobetzeko ahalegin horretan, bestalde, arreta berezia eskainiko zaie bai profesionalak izan ditzaketen beharrei, bai inguruko azokak sustatzeko saiakeri.
- Gazteei baserrian lanean hasteko bidea erraztu egin behar zaie, horrela lehen sektorean gazte-jendea hasteaz aparte, lanpostuak ere sortuko baitira.
- Lehiakortasunari eusteko ahalik eta teknologia egokiena izatea nahiz enpresa-munduari buruzko formazio onena jasotzea ezinbestekoa da; horrez gain, informazio teknologia berriek ere zeresan handia dute.

- Nekazaritzako elikagaien sektorean profesionalen arteko elkarlana, kooperazioa bultzatu egin behar da.
- Nekazaritzako elikagaien sektorea goitik behera antolatu behar da, sektore ezberdinen arteko elkarlaguntza ez ezik, nekazaritzako elikagaien industria ere bultzatuz, horrela lortuko baita azoketan -batik bat ingurukoetan- nekazaritzako elikagai gehiago egotea eta elikagaiei -ekoiztea kostatzen dena kontuan izanda- etekinik handiena ateratzea.

EKONOMIA SAREA DIBERTSIFIKATU ETA LANA SORTU

- Landa eremuko biztanleek lana ez ezik, aukera-berdintasuna ere izan dezaten ahalegindu behar da.
- Industria lurzoruak oinarritzko azpiegiturekin batera ugaritu eta bete egin behar dira, modu txukun eta egokian; eginkizun horretan, alde batetik, landa eremuek dituzten ezaugarriak kontuan hartuko dira eta, bestaldetik, bertako ekonomia dibertsifikatzen nahiz pizten ahaleginduko da. Arreta berezia eskainiko zaie nekazaritzako elikagaien industriaren inguruan landa eremuan bertan sortzen diren proiektuei.
- Industria txiki eta ertainei landa eremuan jarri daitezen bidea erraztu egin behar zaie, bereziki tokian tokiko produktuen eraldaketa enpresei-edo zerbitzuei; lehentasun guztia izango dute baserriko produktu tradizionalak sustatzen dituzten ekimenei.
- Informazio teknologia berrietan oinarritzen diren lana antolatzeko modu berriei atak ireki egin behar zaizkie, profesionalak gero eta gehiago erabil ditzaten, horrela lortuko baita lehen sektoreko lan-baldintzak ez ezik, bizi-kalitatea ere hobetzea.

TURISMOA

- Landa turismoa -barrualdekoa- sustatu egin behar da; horretarako, landa eremuetan nahiz naturguneetan -jendeak gero eta gehiago nahi dituen lekuak- handitzen ari den eskariari erantzun egokiak bultzatuko dira, bisitariarentzat leku apartak bihurtzeko. Era berean, nekazalturismoa sustatu behar da baserriarentzat jarduera (diru-sarrera) osagarri bat bezala.

- Landa turismoaren garapena ondo antolatu behar da eta eginkizun horretan printzipio hauei eutsiko zaie: jendetza handiegiak ere etor ez daitezen saiatu, betidanik izan diren jardueren eta natur baliabideen arteko oreka mantendu eta turismoari buruzko araudia landa eremuko errealitate, aukera eta beharretara egokitu. Landa turismoa garatzerakoan arreta berezia eskainiko zaie herri txikietan sortzen diren ekimenei nahiz nekazalturismoei.

HEZKUNTZA ETA KULTURA

- Hezkuntzako eskaintza -bereziki Derrigorrezko Hezkuntza- herri txikietako jendeak eskura izan dezan bermatu behar da, zona bakoitzeko berezitasunak kontuan hartuz.
- Landa eremuari egokitzen zaizkion modelo eta teknika berritzaileen bidez, herri txikietako hezkuntzaren kalitatea hobetu egin behar da, bakoitzak bere ingurua behar bezala ezagutu nahiz baloratu dezan eta, gainera, emakumezkoek zein gazteek, batik bat, behar duten formazioa jaso dezaten.
- LH nahiz lanerako formazioa biztanleen beharretara egokitu behar dira, eskulan koalifikatua izateko. Eguneratu.
- Kultura, hezkuntza-eta kirol ekipamenduak goitik behera antolatu behar dira, jarduera mota nahiz eginkizun askotarako erabiltzeko modukoak izan daitezen.
- Herri txikietako kultura hedatu egin behar da, jendeak baserri giroko bizimodua -kultura- ezagutu eta baloratu dezan.

OSASUNA

- Herri txikienetako nahiz herriguneetatik aldenduen dauden guneeetako biztanleek osasun baliabideak gero eta eskurago, gertuago izan ditzaten ahalegindu behar da.
- Farmaziaren Antolamendurako Legearen barne, herri txikietako biztanleentzat bereziki diseinatutako farmaziaren antolamendu bat bultzatu behar da.

ETXEBIZITZA

- •Landa eremuak dituen berezitasunei nahiz eskaintzen dituen aukerei egokitutako etxebizitza-politika bat garatu behar da. Politika horrek printzipio hauek izango ditu: etxebizitzek

dentsitate baxua eduki, etxebizitzak kalitatezkoak izan, herri txikiak egunero bizitzeko erakargarriak bihurtu, espekulazioa ekiditu eta herri txikietako gazteei etxebizitza bat eskuratzeko bidea erraztu.

AZPIEGITURAK

- Herri txikietan bizi direnei hainbat eta hainbat alorretara heltzeko bidea erraztu egin behar zaie: lana, zerbitzuak, formazioa, aisialdia, jendarteko hartu-emanak eta kontsumoa. Horretarako, ezinbestekoa da beharrezkoak diren azpiegitura guztiak jartzea.
- Oinarri-oinarrizko azpiegiturak lehenbailehen jarri behar dira (garraioa, argi-indarra, ur horniketa-nahiz saneamendua, gasa, telefonia, ureztatzeak -azken hauek lehen sektorearentzat hil ala bizikoak dira-). Arreta berezia eskainiko zaie, era berean, telekomunikazioen azpiegiturei, izan ere, azpiegitura mota hauek berebiziko aukerak eskaini diezazkiekete landa eremuetako ekonomia jarduerari nahiz zerbitzuei aurrera ateratzen.
- Esan den guztiak lurralde bakoitzean lehentasun osoa izango du; eginkizun horretan, gainera, eskumena duten erakundeek arduratuko dira biztanle guztiak, zerbitzuen alorrean, aukeraberdintasun eskubidea bermatua izan dezaten.

LURRALDE-ANTOLAMENDUA

- Lurralde-antolamendua eta hirigintza garatzeko behar diren tresnak landa eremuek dituzten ezaugarriak nahiz beharrei egokitzen zaizkienak behar dute izan. Horrela, interes guztiak bat eginda gestionatu ezinik ez dago: alde batetik, natur baliabideak antolatu nahiz zaindu eta baso-nahiz nekazaritzarako balio handia duten lursailak babestu beharra, eta, bestaldetik, ekonomia jarduerak mantendu nahiz garatu eta herri txikietan behar diren zerbitzuak jarri beharra.
- Arreta berezia eskainiko zaie landa eremuek eta bertan bizi den jendeak zerbitzuen nahiz azpiegituren inguruan dituzten beharrei, herri txikietako ekonomien dibertsifikazioari eta landa eremuetan denboran zehar iraungo duen ekonomia garatzeari. Horretarako, hirian sortutako eginkizunak edo betebeharrak, eta hiriko beharrei erantzuten dietenak, landa eremuen gain utzi edo

ez aztertuko da; beti ere, garbi izanda landa garapeneko politikak dituen helburuekin bat egin behar dela.

- Landa eremuko nekazaritzak, basogintzak nahiz naturak dituzten baloreak babestu egin behar dira.

INGURUGIROA

- Landa eremuan denboran zehar iraungo duen garapena bultzatu behar da, gaur egun dauden beharrei erantzungo diena, baina, era berean, ondorengo belaunaldiek izango dituzten beharrei ere erantzuteko gai izango den garapena.
- Ingurunea babestu behar da, hondamenei aurre hartuz eta kalteak -daudenean- konponduz.
- Biodibertsitatea ere babestu behar da; horretarako, lursailen aniztasuna mantendu ez ezik, bertako espezie nahiz arrazak babestu eta berreskuratu ere egingo dira, jatorrizko ekosistemetan dauden genetika-gaiak erabiliz.

Aipatu diren gidalerroak kontuan izanda, Tolosaldeko Landa Garapeneko Programak honako elementu hauek zehazten ditu:

- Sektore-nahiz Administrazioako alor bakoitzean bete behar diren helburu estrategikoak, beharrei erantzuteko eta antzemandako hutsuneak betetzeko.
- Jarritako helburuak betetzeko garatu behar diren estrategia zehatzak, Eskualdean nahiz bertako zona bakoitzean garatu behar direnak.
- Jarduera zehatzen programazioa (Jarduera-planak) eta hori gauzatzeko beharko diren baliabideen kalkulu bat.

Euskadiko Landa Garapeneko Legetik ateratako Gidalerro hauek Europar Batasuneko Nekazaritza-kontseiluaren planteamenduekin bat datoz. Kontseilu horren iritziz, landa eremuak epe luzera bideragarriak izatea aurre egin behar zaion erronka da, garbi edukita, hori bai, helburua denboran iraungo duen garapena dela; garapen horretan ekonomia ez ezik, gizarte-eta ingurugiro alorrak ere landu behar dira. Era honetan, Batasuneko Nekazaritza-ministroek egin dituzten gogoetatik gauza bat ondorioztatzen da: nekazaritzari buruzko egitura-politikak, gainontzeko politikekin batera (eskualde, garraio, hezkuntza eta abar), eskualde mailako

estrategia osatzeaz gain, hartzen diren neurriak alor guztiak hartzen dituztenak -integralak- behar dute izan.

Ildo hauek kontuan izanda, alor bakoitzean **helburu eta bide estrategikoak** definitzen dira, jarduera-planekin batera. Jarduera-plan horien gehiengoa orokorra da, hau da, programaren helburu diren herri guztietan aplikatu behar dira. Beste zenbait kasutan ordea, zenbait herri konkretuetarako definitu dira jarduera-planak. Ondoren datozenak, Abaltzisketa, Amezketeta, Altzo, Baliarrain, Ikaztegieta, Orendain eta Aralarren aipamen zuzena egiten dutenak dira.

NEKAZARITZA ETA BASOGINTZA

- Helburu estrategikoa 1: baserriek lehiatzeko duten gaitasuna hobetu

Bide estrategikoa	Jarduera- planak
1.1. Ustiapenen gestioa hobetu, enpresa irizpideen bidez, baserriak errentagarriak izan daitezen eta denboran zehar iraun dezaten.	1.1.1.... 1.1.2.... 1.1.3.... 1.1.4.... 1.1.5.... 1.1.6.... 1.1.7.... 1.1.8.... 1.1.9....
1.2. Baserriko lursailen zatiketak dakartzan ondorioei aurre egin.	1.2.1.... 1.2.2.... 1.2.3.... 1.2.4. Inguruko baserritarrei herri-lurrak erabiltzea bultzatu (Amasa, Aralar, Asteasu). 1.2.5....
1.3. Lehen sektoreak dituen beharrei erantzungo dien etengabeko formazioa bultzatu.	1.3.1.... 1.3.2.... 1.3.3.... 1.3.4....

- Helburu estrategikoa 3: sektorearteko elkarlana eta nekazaritzako elikagaien industria bultzatu.

Bide estrategikoa	Jarduera- planak
3.1. Herri txikietan sortzen diren ekimenak indartu.	3.1.1.... 3.1.2. "Idiazabal Gazta" izendapenaren barne "Aralarko Gazta" azpiizendapena lortu.
3.2. Dauden nekazaritzako elikagaien enpresei lagundu.	3.2.1.... 3.2.2....
3.3. Nekazaritzako produktuen komertzializazioa hobetu.	3.3.1.... 3.3.2. Komertzializazioa elkarlanean egin (Aralarko gazta eta abar)..
3.4. Ardiaren sektorean gestiorako dirulaguntzak gehitu.	3.4.1....

- Helburu estrategikoa 4: lursailei ahalik eta etekin gehien atera, erabilera egokiak emanez.

Bide estrategikoa	Jarduera- planak
4.1. Lursailei ahalik eta etekin gehien atera, nekazaritzarako duten gaitasuna zainduz.	4.1.1.... 4.1.2. Herri-lurrak baserri-lurrekin batera larreetarako erabil daitezkeen ala ez aztertu (Amasa, Aralar...) 4.1.3.... 4.1.4.... 4.1.5....

LANDA EREMUAN EKONOMIA SAREA DIBERTSIFIKATU ETA LANA SORTU

- Helburu estrategikoa 1: lana sortzeko ahalegin guztiak egin, batik bat gazte eta emakumeentzat.

Bide estrategikoa	Jarduera- planak
1.1. Herri txikietan sortzen diren ekimenak garatu.	1.1.1.... 1.1.2.... 1.1.3. Sustatzaileak bilatu: karrera edo ikasketan amaitzerakoan egiten diren proiektuak proiektu berrien bideragarritasuna aztertzeko "aprobetxatu". Lan horretan, tutore batek lagunduko du; tutore hori dirulaguntzak, sustatzaileak... bilatzen ere saiaturiko da (Fraisoro Eskolako saiakera "pilotua"). Zona bakoitzean dauden baliabideak aprobetxatuz proiektuak bultzatu. Baliarraingo urtegiaren inguruan zer nolako jardueran antola daitezkeen aztertu.

Bide estrategikoa	Jarduera- planak
	1.1.4....
1.2. Industriak indarra duen zonetara enpresak erakarri.	1.2.1.... 1.2.2.... 1.2.3. Amezketan eta Elduain-Berastegi-Berrobi korridorean dagoen industria mugimendua indartu, 100 bat lanpostu sortuz. Sortutako lanpostuak zonako udalerrien artean banatuko direla bermatu.
1.3. Industria lurzorurik ez dagoen udalerrietara ekonomia-jarduerak erakarri.	1.3.1. Hainbat udalerrri eta auzotan bereziki prestatuta dauden lokaletan ekonomia-jardueran martxan jarri; horrela, 100 bat lanpostu sortuko dira (Abaltzisketa, Gaztelu, Oresa, Hernialde, Larraul, Alkiza eta Bedaio). Lokal horietan jartzeko moduko negozioak bilatu. Sortutako lanpostuak zonako udalerrien artean banatuko direla bermatu.

- Helburu estrategikoa 2: dauden industriguneak sendotu, eta areaka industria lurzoruak garatu eta bete.

Bide estrategikoa	Jarduera- planak
2.1. Aspalditik industria ezagutu duten zona sendotu.	2.1.1. Industria kalifikazioa duten lurzoruak desblokeatu (Asteasu, Altzo, Leaburu, Lizartza, Albiztur eta Bidegoian). 2.1.2.... 2.1.3.... 2.1.4....
2.2. Zona berriei kalifikazioa aldatu, enpresak erakartzeko.	2.2.1. Amezketan eta Elduain-Berastegi-Berrobi korridorean lurzoruei kalifikazio berria eman.
2.3. Hutsik dauden lokalak gestionatu.	2.3.1.... 2.3.2.... 2.3.3....
1.3. Telelan-en enpresak martxan jarri/sortu.	3.1.1. Industria lurzorurik ez izateaz gain, ekonomia ahula duten udalerrietara telelan-enpresak erakarri (Abaltzisketa, Orendain, Gaztelu, Oresa, Hernialde, Larraul, Alkiza...)

TURISMOA

- Helburu estrategikoa 1: turismoa planifikatu, txukun eta zonak dituen errealitate nahiz gaitasunak kontuan hartuta.

Bide estrategikoa	Jarduera- planak
1.1. Sentsibilizazio-lana, turismoaren alorrean zonak duen gaitasuna ez ezik, zonako ekonomia dibertsifika dadin, turismoa ere baliabide dela erakusteko.	1.1.1....
1.2. Gaur egungo eskaintza turistikoa egituratu, koordinatu eta hobetu.	1.2.1.... 1.2.2.... 1.2.3.... 1.2.4.... 1.2.5.... 1.2.6.... 1.2.7.... 1.2.8.... 1.2.9.... 1.2.10.... 1.2.11. Baliarraingo urtegian ur kirolak sustatu.
1.3. Bitxiak diren ekimen berriak –publikoak nahiz pribatuak- indartu.	1.3.1.... 1.3.2... 1.3.3.... 1.3.4....
1.4. Eskaintzen denaren berri bi eskualdeetatik kanpora emateko komunikazio-plan bat diseinatu.	1.4.1.... 1.4.2....

HEZKUNTZA ETA KULTURA

- Helburu estrategikoa 1: hezkuntzako eskaintza jendeak eskura izan dezan bermatu.

Bide estrategikoa	Jarduera- planak
1.1. Sei urte bitarteko eskolarik ez duten herrietan ematea bultzatu.	1.1.1....
1.2. Hainbat herritan Lehen Hezkuntzako (12 urte arte) emateko dauden aukerak aztertu.	1.2.1. Abaltzisketan, Elduainen zein Gaztelun Haur-nahiz Lehen Hezkuntzako zentroak jartzea aztertu.
1.3. Joan-etorriak egin behar dituztenentzat oinarritzko zerbitzuak hobetu.	1.3.1.... 1.3.2...
1.4. Herri txikietakoko gazteei hezkuntza jaso dezaten bidea erraztu.	1.4.1.... 1.4.2....

- Helburu estrategikoa 4: hezkuntza, kultura eta ekipamendu egokiak jarri, eta ahalik eta probetxu gehien atera.

Bide estrategikoa	Jarduera- planak
4.1. Hezkuntza, kultura eta kiroltarako erabiltzen diren udal-ekipamenduak jarduera askotarako erabiltzeko moduan antolatu.	4.1.1... 4.1.2. Herri txikietako jendeak azaldu dituen beharrak aintzakotzat hartu behar dira, ekintza planei dagozkien elkarlan-hitzarmenak udalekin sinatzerakoan (Asteasu, Hernialde, Baliarrain, Amezketa, Orendain, Ikaztegieta eta Billabona). 4.1.3....
4.2. Irekita dauden eskoletan dagoen giroa eta ekipamendua hobetu.	4.2.1... 4.2.2. Altzoko eskola berreraiki. 4.2.3....

OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUAK

- Helburu estrategikoa 3: herri txikietako biztanleei oinarrizko zerbitzuak herrian bertan ematea bermatu.

Bide estrategikoa	Jarduera- planak
3.1. Jendea gizartez zerbitzuek dituzten abantailez sentsibilizatu.	3.1.1....
3.2. Gizarte Asistentzia landa eremuaren beharretara egokitu.	3.2.1... 3.2.2... 3.2.3... 3.2.4...
3.3. Herri txikietako biztanleei osasun eta gizarte zerbitzuak izateko bidea erraztu eta jendarteko hartu-emanak nahiz giro atsegina ahalbidetu.	3.3.1... 3.3.2... 3.3.3... 3.3.4. Non elkartua eta zer egiteko izan: udal-ekipamenduak jarduera mota nahiz eginkizun askotarako prestatu, emakumezkoei nahiz adineko pertsoneri hainbat zerbitzu eskaintzeko (Baliarrain, Amezketa, Altzo eta Orendain, besteak beste).
3.4. Baliabideei ahalik eta etekin gehien atera.	3.4.1. Zona II-ko Gizarte Zerbitzuak gestionatzeko eta hobetzeko mankomunitate baten bidez emango liratekeen zerbitzu berriak sortzea aztertu (Abaltzisketa, Amezketa, Altzo, Baliarrain eta Orendain).

AZPIEGITURAK

- Helburu estrategikoa 2: gaur egun komunikazio nahiz garraio arloetan dauden hutsuneak bete, jendearentzat muga handiak direlako zerbitzuak eskuratzeko garaian.

Bide estrategikoa	Jarduera- planak
2.1. Tolosaldeko landa eremuak zeharkatzen dituen errepide sarea hobetu.	<p>2.1.1. Gipuzkoako Errepide Planak jarduerentzat ezartzen dituen epeak (hasteko epe-muga 2000. urtea) aurreratu, eskualdeetako herriburuetara heltzeko dituen errepide-sarea hobetu, errepideak, seinalizazioa barne, hobetu beharrian daudelako.</p> <p>ERREPIDEA: eskualde sarea gi 2133 DESKRIBAPENA: ABALTZISKETA-AMEZKETA LANAK BURUTZEKO HIRURTEA: 2008-2010</p> <p>2.1.2. Honako herri hauetara doazen errepideak – trazatuak eta zoruak- hobetu: Baliarrainera doan errepidea hobetu, eta urtegia dela-eta egin behar den errepide berria trazatu egokiago batekin egin, Baliarraingo udalerriaren eskaerak aintzakotzat hartuz alegia. Lizartatik Leaburura doan errepidearen trazatua.</p> <p>2.1.3....</p>
2.2. Baserrietara-eta doazen bideak egokitu eta hobetu.	<p>2.2.1....</p> <p>2.2.2....</p>
2.3. Herri txikietako biztanleentzat garraio zerbitzua malgutu, egokitu.	<p>2.3.1....</p>

LURRALDE ANTOLAMENDUA ETA INGURUGIROA

- Helburu estrategikoa 2: nekazaritza, basogintza nahiz naturako baloreak babestu eta ingurugiroa berreskuratu.

Bide estrategikoa	Jarduera- planak
2.1. Nekazaritza jarduerak nahiz beste edozein isurkik ingurugiroan eragindako kalteak konpondu.	<p>2.1.1....</p> <p>2.1.2....</p> <p>2.1.3....</p> <p>2.1.4....</p> <p>2.1.5....</p> <p>2.1.6....</p>
2.2. Aukeran dauden baliabideetatik energia atera.	<p>2.2.1....</p>

Bide estrategikoa	Jarduera- planak
2.3. Biztanleak ingurugiroarekiko sentsibilizatu.	2.3.1.... 2.3.2.... 2.3.3....
2.4. Naturako baloreak eta zonek dituzten paraje zoragarriak babestu.	2.4.1.... 2.4.2.... 2.4.3. Aralarko Parke Naturala indartu.

Tolosaldeko Landa Garapen Programa **2003an onartu** zen, beraz hainbat jarduera-plan jada aurrera atera dira eta beste batzuk agian lekuz kanpo geratu dira. Hala ere, garbi ikusten da Landa Garapen Programako jarduera-planen gehiengoa oso kontuan hartua izan beharko dela Abaltzisketa, Altzo, Amezketa, Baliarrain, Ikaztegieta eta Orendaingo Tokiko Agenda 21eko ekintza planak definitzerakoan.

Tolosaldeako Turismoko Plan Estrategikoa

TOLOSALDEAKO TURISMOKO PLAN ESTRATEGIKOA

Planaren ezaugarriak

Plan hau Siadeco enpresak egina da 2004ean. Bultzatzaileak Tolosaldea Garatzen (eskualdeko garapen agentzia) eta Tolomendi, (Tolosaldeko Landa Garapen Elkartea) dira.

Egitura:

- Egoera turistikoaren diagnostikoa.
- Helburu estrategikoak.
- Jarduera-eremuak.
- Ekintzak.

Jarraipen Batzorde bat aurreikusten du, eragile publiko eta pribatuen interesak uztartzeko, iradokizunak baloratzeko, jardueren proposamenak egiteko eta lehentasunak finkatzeko. Gaur egun, Jarraipen Batzorde hori eratua dago.

Hiru ardatzetan oinarrituriko produktu turistikoa bultzatu nahi da, garapen iraunkorrean oinarritutakoa: arlo ekonomikoan, sozialean eta ingurumenekoan.

Ezinbesteko lan bezala definitzen ditu ondokoak:

- Produktu turistikoa planifikatu eta antolatzea.
- Marka bat sortu eta produktu turistikoarekin batera, turista/bisitari potentzialei modu erraz eta erakargarrian aurkeztea.
- Turisten esperientzia atsegina eta berezia izateko zerbitzua eskaintzea.
- Turista bera ala bere ezagunak bertara itzultzera animatzea.

Diagnostikoan agertzen den "Komunikazioa eta Garraio Sarea" atalean aipatzen diren oinarritzko egiturak (N-1 errepidea, Andoain-Irurtzun autobidea, trenbidea...) eta bizikleta-bideen ibilbideak (bidegorriak) aztergai ditugun herrietako batetik bakarrik igarotzen

dira, **Ikaztegietatik** hain zuzen ere. Bizikleta bideei dagokionez, Donostia- Beasain ardatzak eragiten dio Ikaztegiitari:

Gipuzkoako Bizikleta-Bide Sarearen Planean aurreikusitako ibilbide guztietatik Donostia-Beasain artekoa garrantzitsuenetakoa da, zalantzarik gabe. Izan ere, lurraldeko komunikazio-azpiegitura nagusienak egituratzen dituen ardatzean kokatzeaz gain, gaur egungo trazatuak eskaintzen dituen aukerak, lehentasunezko zatitza egiten du; hau da, batetik bide-zatiak topografia egokia du, eta ezaugarri hauetako bide batentzat egokiak kontsideratzen diren aldapak ditu, eta bestetik ibilbidearen zati handi bat lehengo N-1 errepidearen trazatutik egiteko aukera ikusten da.

Tolosaldetik igarotzen den Santiago Bideko bi ibilbideetako bat ere pasatzen da **Ikaztegietatik**:

Bigarren ibilbidea, hiriguneen garapenak eragindako eraldaketen ondorioz sortzen da. Gipuzkoan hiriguneak XII. mendearen amaiera aldera sortzen hasten dira, eta lehengo bide zaharrak ez dira behar berrietara egokitzen.

Trukean eta komunikazioan oinarritutako hirigune berriak ibaiertzetan eraikitzeak, bide nagusiak menditik ibaietara jaitea ekarriko du, Oriako bailararen hondoan doan komunikazio ardatz nagusia sortuz. Hirigune eta komertzio gune berrietan oinarritutako komunikazio-ardatz berri honek, kontinentea Arabar Lautadarekin zuzen-zuzenean lotuko du.

Oriako bailararen hondoan XX. mendean zehar gertatu den transformazio handiak, XIX. mendera arte erret bidea taxutzen zuten aztarna ia guztien desagertzea ekarriko du.

Barreiatutako hiriguneen artean, naturaren ikuspegitik interesgarrienak diren eremuetarako sarrera ematen diguten guneak azpimarratzen dira diagnostikoan, horien artean **Orendain**, **Abaltzisketa** eta **Amezketeta** aipatuz:

Orendain eta Abaltzisketa arteko kordala eta Amezketako nukleoa Aralarreko Parke Naturalerako konexio puntu modura; Berastegiko nukleoa Leitzarango Biotopo Babesturako konexio puntu modura; eta Ernio Mendizerraren inguruan kokatutako nukleo barreiatuak: Bidegoian, Albiztur, Hernialde, Gaztelu, Larraul eta Asteasu.

Aztergai ditugun herrien turismorako establezimenduen eskaintzari buruzko honako datuak biltzen dira diagnostikoan:

Udalerrria	Establezimendu mota			Guztira			
	Hotela, hostala, pentsioa	Nekazaritza turismoa/ landetxea	Aterpetxea	Establ. Kop.	%*	Plaza kop.	%*
Abaltzisketa	-	1	1	2	6,66	62	12,7
Altzo	-	1	-	1	3,33	12	2,5
Amezketeta	-	-	1	1	3,33	22	4,5

Udalerrria	Establezimendu mota			Guztira			
	Hotela, hostala, pentsioa	Nekazaritza turismoa/ landetxea	Aterpetxea	Establ. Kop.	%*	Plaza kop.	%*
Baliarrain	-	-	-	-	0	0	0
Ikaztegieta	-	-	-	-	0	0	0
Orendain	-	-	-	-	0	0	0

* Tolosaldeako datuak kontuan hartuta.

Eskualdearen baliabide turistiko garrantzitsuenak

Eskualdearen Baliabide Turistiko garrantzitsuenak definitzen ditu planak.

- Baliabide naturalak eta aisialdikoak: Ibaien artean Araxes aipatzen da.

Baliabide mota	Baliabidearen deskribapena
Parke Naturalak	<p>Aralar eta Pagoeta:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Gipuzkoak dauden hiru parke naturaletatik bik Tolosaldeko eskualdea mugatzen dute, batak iparraldetik, eta bigarrenak hegoaldeetik. ▪ Aralarren azalera 10.971 ha-takoa da, eta Pagoetarena aldiz, 1.335 ha-takoa. ▪ Aralar parkearen muina kareharrizko mendilerro batek osatzen du. Paisaia nahikoa homogeneoa da eta larreak eta harkaitzak dira nagusi, kalitate estetiko altua ematen diote hainbat pagadi eta sastrakadi barreiatu ere badituelarik. Monumentu megalitikoak ere badaude. ▪ Pagoetako erliebea malkartsua da, altuera desberdintasun handiak ditu, eta bertan Atxurigaina– Olarteta– Paoetako Gurutzea kordala nagusitzen da. Mendikate hori gainera, Urola eta Oria ibaien isurialdeen banalerroa da, eta arro hidrografikoekin bat datorren bi ikus- arroak mugatzen ditu.
Mendiak	<p>Txindoki:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Kokapena: Aralar Parke Naturalean kokatzen da. ▪ Altuera: 1.346 metro. ▪ Deskribapena: “Cervino txikia” deritzo. Txindoki mendiaren tontor arrokatsu zorrotza, Aralar mendilerro zabalaren tontorrik adierazgarriena da ziurrenik ere. Aralar Parke Naturala, Nafarroak eta Gipuzkoako hainbat eskualdek partekatzen dute. Txindokirako abiapuntua Abaltzisketako Larraitz auzoan kokatzen da. Bertan, baso hostotsu batean, eta iturri baten aldamenean Nstr. Sra. de los Remedios basiliza dago. Jaiegunetan jende asko hurbiltzen da bertara, ingurune

Baliabide mota	Baliabidearen deskribapena												
	ederraz gozatzeraz. Aparkaleku zabalak ditu eta baita mahaidun parkea, tabernak eta jatetxeak.												
Ibaiak	<p>Oria:</p> <ul style="list-style-type: none"> Jaiolekua eta bokalea: Zegama baino apur bat lehentxeago. Aizkorri mendizerran sortutako erreka baten bateratzeak sortzen da eta Orio ibaian amaitzen da. Luzera: 66 km Arroaren azalera: 871 km² Batez besteko emaria: 26,3 m³/s Bai Oria ibaiaren eta baita bere ibaiadarren uraren kalitatea oso kaskarra izan zen, industrien (paper-fabriken) eta Goierriko udalerrietako hondakinen isurpenen ondorioz. Azken 10 urteetan, egoerak hobera egin duela dirudi. 												
Ibilbideak	<table border="1"> <thead> <tr> <th>Udalerrria</th> <th>Ibilbidearen izena</th> <th>Sailkapena</th> <th>Distantzia</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Altzo</td> <td>Altzomendiko ibilaldia</td> <td>PR-GI 113</td> <td>11,6 km</td> </tr> <tr> <td>Baliarrain</td> <td>Bostaitzetako ibilaldia</td> <td>SL-GI 5</td> <td>3,4 km</td> </tr> </tbody> </table>	Udalerrria	Ibilbidearen izena	Sailkapena	Distantzia	Altzo	Altzomendiko ibilaldia	PR-GI 113	11,6 km	Baliarrain	Bostaitzetako ibilaldia	SL-GI 5	3,4 km
Udalerrria	Ibilbidearen izena	Sailkapena	Distantzia										
Altzo	Altzomendiko ibilaldia	PR-GI 113	11,6 km										
Baliarrain	Bostaitzetako ibilaldia	SL-GI 5	3,4 km										

- Baliabide historiko- kulturalak: ondorengoak jasotzen ditu diagnostikoak:

Baliabide mota	Baliabidearen deskribapena
Monumentuak	<p>San Bartolome eliza:</p> <ul style="list-style-type: none"> Kokapena: Amezketako herrigunean kokaturik dago. Deskribapena: bere soiltasunez nabarmentzen da. Nabe bakarreko eliza da, berpizkundearen garaiko Santa Anaren taila bat du. Famatua da bere argizaiolengatik. <p>San Martin basiliza:</p> <ul style="list-style-type: none"> Kokapena: San Martingo zelaian kokatuta dago. Bertan mahaiak, harrizko aulkiak eta iturri bat dago (Amezketan). Deskribapena: oin errektangularra duen landa-eraikina da. XVIII. mendekoa izan daitekeen San Martinen aspaldiko irudi bat du barnean. <p>Pilarko Andre Mariaren basiliza:</p> <ul style="list-style-type: none"> Kokapena: Ikaztegiaren udalerrian kokatzen da, errepide nagusian. Deskribapena: Zaragozako Pilarko Ama Birjinari egindako irain bat kitatzeko eraiki zen. XIX – XX mendeen artean eraiki zen. <p>San Juan Bautistaren eliza:</p> <ul style="list-style-type: none"> Kokapena: Abaltzisketa Deskribapena: XVI. mendean eraikitakoa da. Euskal estilo gotikoan egin dago, baina aurretiaz egin zen beste eliza baten XII. mendeko elizatari erromanikoa du. <p>Altzoko erraldoiaren baserria:</p> <ul style="list-style-type: none"> Kokapena: Altzo

Baliabide mota	Baliabidearen deskribapena
	<ul style="list-style-type: none"> Deskribapena: Altzo- Muñoko ondare historiko- artistikoaren ikuspegitik duten garrantzia handia da, Gipuzkoako Lurralde Historikoan ongien kontserbatuen artean katalogatuta baitaude. Kasu berezia da Ipintza- Zar baserria, Migel Joakin Eleizegi, Altzoko Erraldoairen jaiolekua. Bera, bere garaiko gizonik garaiena izan zen, 2,40 metro neurtu baitzituen (1818-1861). Erabiltzen zituen antxume-larruz egindako eskularruak gordetzen dira.
Besterik	<p>Kanpamentu Zelta:</p> <ul style="list-style-type: none"> Kokapena eta deskribapena: berez Tolosan kokatutako baliabidea da, bertara iritsi ikaztegietatik egiten bada ere. 600 metrotako harresi bat mantentzen da.

- Gastronomia eta ostalaritza

Baliabide mota	Baliabidearen deskribapena
Gastronomia eta ostalaritza	<p>Sagardotegiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Tolosaldeko ondorengo udalerrietan sagardotegiak daude: Aduna, Amezketeta, Abaltzisketa, Asteasu, Ikaztegieta, Leaburu, Tolosa eta Zizurkil.

- Enpresa turistikoak eta alojamenduak: kiroletan Araxesen ematen diren piragua ikastaroak aipatzen dira.

Jarduera esparrua	Enpresa turistikoen eta alojamenduen identifikazioa/ azalpena
Zaldiz ibiltzea	<p>Alarpe Elkarte Hipikoa</p> <ul style="list-style-type: none"> Aralar Parke Naturalean, zaldiz ibiltzeko aukera eskaintzen du.

- Ospakizun eta jai nagusiak: hauen artean daude herrietako festak.
- Merkatuak, azokak eta merkataritza ekipamenduak: ez dira aztergai ditugun herriak aipatzen.
- Kirol ekipamenduak

Ekipamendu mota	Ekipamenduen identifikazioa
Kirol azpiegiturak	<p>Frontoi estalia:</p> <ul style="list-style-type: none"> Kokapena: Santa Barbara basilizaren aldamenean (Altzo). <p>Estali gabeko frontoia:</p> <ul style="list-style-type: none"> Tolosaldeko hainbat udalerritan.

Ekipamendu mota	Ekipamenduen identifikazioa
	<p>Kiroldegi estalia:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Kokapena: Ikaztegieta ▪ Deskribapena: gimnasio, frontoi, dutxak, gelak, zerbitzuak, biltegiak, etab. dituzten kiroldegiak. <p>Pistak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Kokapena: Ikaztegieta ▪ Deskribapena: hainbat kirol jokatzeko pistak: saski-baloia, futbola, areto-futbola, atletismoa, etab.

Plangintzaren fasea

Plangintza fasean, turismorako garrantzitsuak diren **5 zonalde** definitzen dira eta aurrera eraman beharreko ekintzak jarduera eremuen arabera sailkatzen. Zonaldeak ondorengoak dira:

- Tolosako hirgunea.
- Orendain – Abaltzisketa – Amezketaren ardatza:
 - Aralar Parke Naturalaren magaletan kokatutako ibilbidea, Orendain eta Larraitzen artean. Bertako baloreak eta indarguneak islatzen duten irudi eta hitzak: paisaia, ibilbideak, Aralarko Parke Naturala, monumentu megalitikoak, Txindoki, artzaintza eta bertako produktuak.
 - Sarbide-gunea: Abaltzisketako Larraitzen auzoa.
- Leitzarango bailara eta bere luzapena Berastegiko bailaratik barrena.
- Albiztur – Bidegoian – Argisaineko Santa Marina triangelua.
- Asteasuko bailara.

Ikusten denez, aztergai ditugun herrietako 3 daude zona hauetako batean. Ondoren datozen ekintzak dira turismoko plan estrategikoak jasotzen dituenak. Bozue Udaltalde 21a osatzen duten udalerrian zuzenki egin beharreko ekintzen informazio osoa jaso da:

1. Tolosaldeko Turismoaren Lurralde Mailako Antolaketa eta Ekipamenduen Planifikazioa	
1.1	Tolosako hirigunean informazio-gunea sortzea.
1.2	Asteasuko hirigunean informazio-puntua sortzea.

1.3	Abitzurko hirigunean Ernio Mendilerroaren inguruko informazio-puntua sortzea.
1.4	Berastegiko hirigunean Leitzarar Bailarako informazio-puntua sortzea.
1.5	<p>Abaltzisketako Larraitz Auzoan Aralarko Parke Naturalaren inguruko informazio-puntua sortzea.</p> <p>Azalpena:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Kokaleku gisa, Larraitz auzotik gertu dagoen ostalaritza-establezimendu edo atsedeen-lekuren bat informazio-puntu erara aritzea proposatzen da Abaltzisketa, Aralarko Parke Natural eta inguruko herri eta baliabideei buruzko zuzeneko informazioa, liburuxkak, triptikoak, eta abar luzatuz. ▪ Aralarko Parke Naturalak, naturari eta paisaiari lotutako balioez gain, ondare kultural aberatsa gordetzen du eta aisialdiko jarduerak egiteko aukera handiak eskaintzen ditu. Mendi Federazioak proposatutako hainbat Ibilbide Luze eta Ibilbide Motz ere (GR eta PR), mendi ibilbide bezala markatuta daude. Horietaz gain, jolaserako- ekipamendua duten zonaldeen artean ere oinezkoentzako ibilbideak daude. ▪ Leitzararen kasuan gertatu bezala, Aralarko Parke Naturala eta are gehiago, Larraitz auzoa eta Txindoki mendia, Goierriko eskualdearekin erlazionatu izan dira, bi gune hauek ia bere osotasunean Abaltzisketan kokatzen badira ere. Horregatik, ekintza honek Natur Parkearen irudia Tolosaldearekin lotzen lagundu beharko luke. <p>Kate turistikoan duen eragina:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Hasierako harrera: honek turistaren egonaldia baldintzatu dezake, horregatik informazio gunearen kokalekua garrantzitsua izango da, bai eta eskainitako informazioa nola ematen den ere. ▪ Destinoari buruzko informazioa: bai turistarentzako eta herritarrentzako balio duen informazioa garatu behar da, garapen iraunkorreko osagaia txertatu behar duelarik. ▪ Fidelizazio zerbitzua: alojamendu, jatetxe, atrakzio- zerbitzuen bezeroak erakarri eta fidelizatzeko prozesuan eragin dezake. <p>Arrakastarako elementu giltzarriekin duen lotura:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Garrantzia: zonaldearen elementu erreferente bezala joka dezake informazio-puntu honek. ▪ Urtarokotasuna: informazio-gunean garatutako informazioak urterokotasuna saihestea ahalbidetu dezake. ▪ Irigarritasuna/akzesibilitatea: beste batzuen artean, informazio-gunearen eskutan egongo da eskualdeko ondare natural eta kulturalak modu ulerterraz eta erakargarri batean aurkezteko erantzukizuna. <p>Inplikaturako eragileak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Tolosaldea Garatzen– Tolomendi– Tolosaldea Tour. ▪ Eusko Jaurlaritza. ▪ Abaltzisketako Udala- Inplikaturako ostalaritza edo atsedeen-establezimenduak. <p>Exekuzio-epeak: 2005/2006/2007.</p> <p>Lehentasan-maila: altua (3).</p> <p>Aurrekontuaren estimazioa: 2.000 euro.</p>
1.6	Abaltzisketako Larraitzera iristeko erraztasunak emateko azpiegiturei buruzko Ikerketa.

	<p>Azalpena:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Gipuzkoa aldetik Aralarrerako ate naturala izateak, eta bere paisaiaren ezaugarriek, jada erreferentea den atsedenekua bihurtu dute Larraitz. Eguraldia ona den jai egun batean, 230 ibilgailu inguru biltzera irits daitezke bere ingurune hurbilean. ▪ Gaur egun bi aparkaleku bereiz daitezke: <ul style="list-style-type: none"> ○ Lehenengoa han kokatuta dauden eraikinen inguruan aurkitzen da, eta GI-2133 errepidearen bazterrak hartzen ditu. Honek oinezkoak errepidetik joatera behartzen ditu maiz. Esparru honek 80 ibilgailu inguru har ditzake. ○ Bigarrena, eraikinen eta Parke Naturaleko atearen artean aurkitzen da (gutxi gorabehera 150 ibilgailu). ▪ Larraitz auzoko aparkaleku-sistema berrantolatzea proposatzen da, auzoko eraikinen Iparraldean, 250 ibilgailuentzat lekua izango lukeen azalerako- aparkalekua eraikiz. Horretarako, Parke Naturalaren sarreraren aldamenean dagoen aparkalekua kenduko litzateke, eta ingurunean dauden atsedenekuak zabaldu. Honela, espazio hau, etorkizunean garapen turistikoaren inguruan sor daitezkeen planteamenduetara berregokitu ahal izango litzateke. ▪ Honek gainera, oinezkoentzako bideak hobetu egingo lituzke eraikinen inguruan, eta baita eraikinen eta Parke Naturalaren sarreraren arteko oinezkoen komunikazioa ere. <p>Kate turistikoan duen eragina:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Azpiegitura/ ingurunea: aparkalekua edo atseden lekua bezalako erraztasunak kokatzen den tokia erakargarri eta ezaguna bilakatzea suposa dezake, leku nahikoa eta erosotasuna eskaintzen bada. ▪ Destinorako bidaia: Larraitzera iristeko erraztasunak ematen bada erabilitako denboran eta suposatuko duen kostuan aurrezteak suposa dezake, beraz, lekua turismorako desiragarriago bihurtu dezake. <p>Arrakastarako elementu giltzarriekin duen lotura:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Multzokatzea- iristea/ akzesoa: Abaltzisketa eta Aralarreko Parke Naturaleko azpiegitura batzuk hobetzea lortuko litzateke ekintza hau burutuko balitz (aparkalekua, oinezkoentzako bideak). <p>Inplikaturako eragileak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Tolosaldea Tour– Tolomendi– Tolosaldea Garatzen. ▪ Abaltzisketako Udala. ▪ Foru Aldundia- Eusko Jaurlaritza. <p>Exekuzio-epeak: 2006</p> <p>Lehentasun-maila: ertaina (5)</p> <p>Aurrekontuaren estimazioa: 16.000 €</p>
1.7	Tolosaldetik igarotzen den Santiago Bidea, ingurumenaren ikuspegitik babestu eta balioa ematera zuzendutako plana.
1.8	Tolosaldeko Bidegorrien Plana sustatzea.
1.9	Tolosako hirigunean Paperaren Interpretazio-Zentroa sortzeko Bideragarritasun Azterketa.
1.10	Asteasuko hirigunean "Ipupomamua" ipuinaren interpretazio-zentroaren jarraipena eta sustapena.
1.11	Ostatu-eskaintza berri baten ezarpenerako merkatu-ikerketa.

1.12	Tolosan arte eszenikoen zentro bat sortzeko azterketa.
1.13	Tolosaldean dauden oinezkoen ibilbideak sustatzea.
1.14	Tolosako Alde Zaharra turistikoki biziberritzeko plana.

2. Dinamizatorako Ekintza eta Zerbitzu Turistikoen Antolaketa	
2.1	Nekazaritza-turismoa eta garapen iraunkorraren astea.
2.2	Elikadura, natura eta osasunaren azoka.
2.3	Jarduera ekoturistiko eta turismo aktiboaren inguruko plana.
2.4	Tolosaldeko pintxoan ibilbidea osatzea.
2.5	Ondare natural eta arkitektonikoak berreskuratzeko auzolandegien programazioa.
2.6	Tolosaldeko argazki rallyaren antolaketa.
2.7	Tolosaldeko baliabide turistikoen garapenerako bekaren deialdia.
2.8	Merkataritza eta ostalaritza sektorean asoziazionismoa sustatzeko dinamizazio-egitasmoa.

3. Eragile eta Enpresa Turistikoentzako Laguntzak	
3.1	Tolosaldeko jarduera turistikoen jarraipen sistematikorako informazio-sistemaren definizioa.
3.2	Lehen sektoreak ingurune naturalaren mantenimenduan duen eraginari buruzko azterketa.
3.3	"Itourbask" turismo bulegoen euskal sarearen erabilera.
3.4	Kalitate turistikoen "Q" ikurraren lorpena sustatzeko kanpaina.
3.5	Turismo eragile ezberdinen ingurugiro-kalitatea ziurtatzen duten Nazioarteko Zigiluen sustapena.
3.6	Eragile turistikoen profesionalizazio-maila hobetzeko formazio-saioak.
3.7	Tolosaldeko ostatuaren banakako web-orrien diseinurako laguntzak.
3.8	Establezimenduen irudia eta ekipamendua hobetzeko laguntzak.
3.9	Eragile turistikoentzako familiarizazio-bidaiekin antolaketa.

4. Tolosaldeko Turismoaren Lurralde Mailako Antolaketa eta Ekipamenduen Planifikazioa	
4.1	Tolosaldeko turismoaren web-orriaren hobekuntza
4.2	Seinaleztatze turistikorako planaren diseinua
4.3	Tolosaldeko gida turistikoen diseinua eta argitalpena
4.4	Tolosaldeko turismoaren inguruko bideo/DVD-aren argitalpena
4.5	Tolosaldeko behatokien ibilbidea diseinatzea
4.6	Asteburuetako pakete turistikoen berezien eskaintza
4.7.	Tolosaldeko produktuen saskia sortzeko Marketing Plana
4.8.	Tolosaldeko pertsonai ospetsuen irudiaren bidezko promozioa
4.9.	Tolosaldeko kanpo proiektu handia duten jardueren esponsorizazioa
4.10	Tolosaldeko promozio turistikorako egutegia
4.11	Tolosaldeko eskari turistikoen merkatu ikerketa: lehentasunezko turismo-sektoreen identifikazioa
4.12	Ostatu establezimenduen bidez turistuen fidelizazio neurrien sustapena

5. Turismorako Plan Estrategikoaren Komunikazioa eta Kudeaketa

5.1	Planaren Komunikazioa eta Aurkezpen Publikoa -
5.2	Planaren inplementazio-prozesua eta jarraipen-mahaia-

Herri Batzarreko Ondorioak

HERRI BATZARREKO GALDEKETAREN EMAITZAK

Altzoko Behin-behineko Diagnostikoaren Herri Batzarra 2007ko azaroaren 9an egin zen. Arratsaldeko 19:00etan hasi zen saioa eta lau ordu inguruko iraupena izan zuen. 22 pertsona etorri ziren, tartean 5 udal ordezkari, eta adin tarte gehienak egon ziren ordezkatura.

Herri Batzarrean Behin-behineko Diagnostikoko arazo eta gabezien inguruan jasotako emaitzak txosten honen bukaeran azaltzen dira. Bertan, arazo eta gabezien inkestaren dokumentua oinarritzat hartuz, galdera bakoitzaren inguruan bildutako erantzunak zenbatzen dira.

Inolako erantzunik jaso ez bada edo jasotako erantzuna ulertezina bada "Balio gabea" bezala kontsideratu dira.

Parte-hartzea

Herri Batzarrera gerturatutako **21 herritarrek** parte hartu dute Behin-behineko Diagnostikoko arazo eta gabezia larrienenak identifikatzeko galdeketa honetan. Herri Batzarrean 3 lantalde eratu dira, eta lantalde bakoitzak ondorengo gaiak landu ditu, dinamizatzailearen laguntzaz.

Lantaldeak	Gaiak	Dinamizatzailea	Parte-hartzaileak
1. Lantaldea	Biztanleria eta etxebizitza Jarduera ekonomikoa eta enplegua Jarduera ekonomikoaren eragina Oinarrizko zerbitzuak Hezkuntza	Miren	10
2. Lantaldea	Kultur ondarea, aisialdia eta kirola Elkar- bizi Hizkuntzen bizikidetasuna Mugikortasuna eta garraioa	Onintza	7

Lantaldeak	Gaiak	Dinamizatzailerak	Partehartzaileak
3. Lantaldea	Osasun eta gizarte zerbitzuak Ura Hondakinak Baserria Ingurune naturala Udalaren ondarea Informazioa eta komunikazioa	Amaia	4

Talde bakoitzean, dagozkion gaien inguruko Behin-behineko Diagnostikoko edukiak landu dira soilik.

Jasotako ekarpenen analisia

Lehenik eta behin, esan beharra dago Herri Batzarreko galdeketan parte hartu duten gehienek **adostasuna** erakutsi dutela **Behin-behineko Diagnostikoan identifikatutako gabezi eta arazoekin**.

Izan ere, **adostasun maila** adierazteko orduan, galdeketan aurkeztutako arazo bakoitzarekin batez beste **%60ak ados** dagoela adierazi baitu, %20ak ez du erantzun (edo erantzundakoa ezin izan dugu ulertu), eta gainontzeko %20ak aurkeztutako arazoarekin ados ez dagoela adierazi du.

Larritasun mailari buruz iritzia emateko orduan, kasu **askotan ez da erantzunik jaso**. Honela, batez beste, galdeketan aurkeztutako arazoaren **%42**an partaideek ez dute larritasunaren inguruko iritzirik eman, %26an arazoa larritasun handikoa dela agertu dute, %19an larritasun ertainekoa, eta %13an larritasun txikikoa.

Bestalde, **bost** arazo edo **gabezia berri** proposatu dira, eta aurretik proposatuta zeuden beste **lau** arazo Behin Betiko Diagnostikotik **kentzea** proposatu da. Gehitu den gabezietako bat ondoren landutako Ekintza Planean **lehentasunezko** izendatu den **“herriak zenbat eta nola hazi beharko luken eztabaida burutzea”**. Beraz, pentsa daiteke Altzoko herritarrek etxebizitzaren gaia lantzeko orduan beraien iritzia kontuan hartzea nahiko luketela.

Herri Batzarrean aldi berean Diagnostikoa eta Ekintza Plana landu zirenez, partaideek agertutako koherentzia ere aztertzeko aukera ematen dute emaitzek, hau da, logikaz arazo larrien inguruko ekintzak ondoren lehentasunezko aukeratuko zirela espero zitekeen. Orokorrean, esan daiteke **Behin-behineko Diagnostikoan identifikatutako arazo edo gabezien inguruko emaitzek, Ekintza Planeko ekintzekin lotura** dutela. Hau da, orokorrean, arazo edo gabezia larritzat jo denean, honi irtenbidea bilatzeko ekintza ere lehentasunezko izendatu da.

Hala ere, kasu batzuetan ez da horrela gertatu, eta gure interpretazioa ondokoa da: Diagnostikoko arazoen inguruko iritzia ematea lehendabizi egin zen Herri Batzarrean, eta banakako lana izan zen, taldeko eztabaidarik gabea. Ondoren, parte hartzaileek taldean ekintzen inguruan eztabaidatu zuten, eta agian **batzuk eztabaida horren ondorioz iritzia aldatu zuten**, eta hasera batean larritzat jo ez zuten gai baten inguruko ekintzaren lehentasunaz jabetu ziren, edo alderantziz. Honen arrazoiaren beste azalpen posible bat taldearen barruan eztabaida ematean pertsona jakin batzuek haien iritzia besteen gain nolabait ezarri izana litzateke, baina taldeak dinamizatzen izan ginenon ustez azken hau ez zen eman.

Partaideen **adostasun mailarik altuena** ondoko gaiak bildu dute: **etxebizitzaren** ingurukoek, **zakurrak** libre ez uztearen eskaerak, **plaza** nagusian ibilgailuek sortzen duten arriskuak, bideak **seinaleztatzearen** beharrak, herriko **plazan** debekatuta egon arren jendeak **aparkatzeak**, nagusiek **osasun arreta etxean** jasotzeko eskaerak, uraren arazoa handia dela eta **Ibiur** urtegiaren zain daudela herritarrak, **Ur Kontsortzioan** sartzeak prezioaren igoera ekarri duela, Ur Kontsortziotik irten nahiz gero baldintzak Altzoren aldekoak izango ez liratekeela, **saneamendua** egokitzeko beharra, **hondakinen** inguruan herritarrek hobetzeko gauzak dituztela, baserritik soilik bizi direnen kopurua baxua dela, **lehenengo sektorea** sustatzeko beharrak, herriko **ondare naturala** altxor handia dela, baserriaren beherakadak **paisaian** duen eraginak, eta **baso naturalak** mantentzeko beharrak. Gabezia guzti hauekin ados egon dira parte hartzaileen **%85a baino gehiago**.

Galdeketa aurkeztutako arazoekin **ezadostasuna** gutxiagotan eman den arren, badira hainbat gai partaideen **gehiengo zabal**

baten aldetik ezadostasuna jaso dutenak: oraingoz eguneko zentroaren beharrik ez dagoela (honen beharra dagoela uste dute, alegia), tipula Altzoko produktu bezala bultzatzearen eskaera, udalak ez dituela herritarrak informatzen, udalak oztopoak jartzen dituela komunikazioan, eta udal-ordezkariek udaletxean ez egoteak komunikazioa zailtzen duela.

Honez gain, **egoera politikoa aldatu** denez, gai honekin lotutako **arazoak** edo gabeziak **kentzea** proposatu da talde bateko partaideen aldetik, eta ondorioz partaideen gehiengoak ez ditu aztertu. Talde horretan, udalak eta herritarrek adierazi dute bai heldu eta bai gazteentzako **jarduerak subentzionatzen** dituela udalak, eta beraz, **arazoa kentzea** proposatu da aztertzen hasi aurretik.

Udalerrian kultur eta aisialdi ekintzak aurrera eramateko pertsona bakarra dago, hau da, ez dago gai honen inguruko **teknikaria** alde batetik eta **dinamizatzailea** bestetik. Beraz, gai honen inguruko **gabezia kentzea** proposatu dute lantalde bereko herritarrek, hortaz arduratzen den pertsona badagoelako udalean. Ekintza Planean, ordea, lehentasunezko ekintza kontsideratu da aisialdi eta kultur arloko dinamizazioa herritarren beharretara egokitzeko moduak bilatzea.

Bestalde, badira hainbat gabezia **aldeko zein kontrako iritzi kopuru berdintsuak** jaso dituztenak: **harrobiak** polemika handia sortzen duela herrian, Altzo Azpiko garai bateko **kaolin meategien** eremua agian **kutsatuta** egon daitekeela, **janari dendaren** beharra, **ehiztariak** kontrolatzeko beharra, eta **aparkaleku gehiago** jartzeko beharra.

Azkenik, planteatutako beste arazo mordoxka baten inguruan, partaide **erdiak edo gehiagok ez dute erantzunik eman**: udalak **herria bizirik** mantentzeko ekintzetan gehiago inbertitu beharko lukeela, **bideetan baserriak seinaleztatu** beharko liratekeela, **elurra garbitzeko makina** eduki beharko litzatekeela, **etxez-etxeko laguntza** eskatu eta eman ez zaionik badela herrian, eta **konpostagailua** erabiltzeko ohitura areagotu beharra dagoela. Badirudi gai hauen inguruan herritarrek ez zutela nahikoa informazio iritzia emateko, edo iritzi argirik ez zutela. Haez gain, erantzunik jaso gabe geratu dira herritarrek

Diagnostikotik kentzea proposatu dituzten gaiak, edo eskolarena, jada eraikia dagoena.

Larritasunaren inguruan, garrantzi **altua** eman diete partaideen **erdiak edo gehiagok** ondoko gaiei: etxe berriek herritarren beharrak asetzeko izan beharko luketela, Altzo Azpin zerrategia jartzeko baimena eman izanarekin batzuk ez daudela ados, ehiztariak kontrolatu beharra dagoela, zakurrak libre ez uzteko eskaria, **plaza** nagusian ibilgailuek sortzen duten arriskua, herriko **plazan** debekatuta egon arren jendeak **aparkatzen** duela, nagusiek **osasun arreta etxean** jasotzeko eskaera, uraren arazoa handia dela eta **Ibiur** urtegiaren zain daudela herritarrak, **Ur Kontsortzioan** sartzeak prezioaren igoera ekarri duela, Ur Kontsortziotik irten nahiz gero baldintzak Altzoren aldekoak izango ez liratekeela, **saneamendua** egokitzeko beharra, **hondakinen** inguruan herritarrek hobetzeko gauzak dituztela, baserritik soilik bizi direnen kopurua baxua dela, herriko **ondare naturala** altxor handia dela, eta **baso naturalak** mantentzeko beharra.

Aipatu beharra dago Ur Kontsortzioari buruzko bi arazoak partaideen erdiak larritasun handikoak ikusi dituzten arren, beste erdiak larritasun txikikoak ikusi dituztela. Haez gain, ez dago parte hartzaileen erdia edo gehiagoren ustez **larritasun edo garrantzi gutxiko** arazorik.

Diagnostikoaren inguruko galdeketan jasotako erantzunak

<i>Arazo eta gabezien zerrenda</i>	<i>Ados</i>			<i>LHT¹</i>		
	<i>Bai</i>	<i>Ez</i>	<i>BG²</i>	<i>1</i>	<i>2</i>	<i>3</i>
1. LANTALDEA						
BIZTANLERIA ETA ETXEBIZITZA						
Oraindik gertatu ez den arren, batzuen ustez lo-herri bihurtzeko arriskua du Altzok.	6	3	1	1	5	1
Baserriak hutsik gelditzen ari dira.	9	0	1	0	3	4
Herriak ez du lurzoruetan jabetza askorik eta etxeak eraikitzeko orduan lurzoru pribatuak dituzten pertsonekin egin behar izan dira tratuak.	9	1	0	2	1	3
Etxe berriek herritarren beharrak asetzeko izan beharko luketela uste du gehiengoak, batez ere gazteei zuzenduak.	9	0	1	1	1	5
Auzoetan ez dira Altzo Muinon burutu diren zenbait aurrerapen ezarri.	9	1	0	0	5	2
HERRIAK ZENBAT ETA NOLA HAZI BEHARKO LUKEN EZTABAIDATU BEHAR DA.³	-	-	-	-	-	-
ETXEBIZITZA HUTSEN KOPURUA HAZTEN ARI DA.	-	-	-	-	-	-
JARDUERA EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA						
Nahiz eta baserriak ustiapen bezala gain-beherakada jasan, eraikina etxebizitza bezala mantentzearen aldekoak izan direla diote batzuk.	9	1	0	0	4	3
Batzuen ustez herrian lanpostu berriak sortu beharko lirateke, baina ez edozein preziotan.	8	1	1	4	1	0
JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA						
Batzuen ustez Altzoko Harrobiak polemika handia sortzen du.	6	4	0	1	3	2
Batzuen ustez lekuz kanpo dagoen handitze bat burutu da Amategi Aldea industrigunean, eta ez da bertako auzokoen iritzia kontuan hartu.	6	2	2	2	1	3

¹ Gabeziaren lehentasuna: lehentasun altua = 3; lehentasun ertaina = 2; lehentasun baxua = 1.

² BG = Balio gabe, ez da erantzun edo idatzitakoa ulertzerik ez dago.

³ Letra larriz eta kurtsibaz ageri direnak, Herri Batzarrean herritarrek proposatutako arazo edo gabezia berriak dira. Ez dira lehentasunak markatu.

<i>Arazo eta gabezien zerrenda</i>	Ados			LHT ¹		
	Bai	Ez	BG ²	1	2	3
Altzo Azpin legez kanpo zegoen zerrategi bat martxan jartzeko baimena eman zuen udalak, eta batzuk ez daude erabaki horrekin ados.	8	2	0	0	1	5
Kaolineko minak zeuden lehen Altzo Azpin eta batzuen ustez baliteke eremu kutsatuak izatea.	4	5	1	1	2	1
OINARRIZKO ZERBITZUAK						
Batzuk janari dendaren beharra ikusten dute.	4	5	1	2	1	0
TELEBISTAREN SEINALEA TXARRA DA TOKI BATZUETAN.	-	-	-	-	-	-
WIMAX-AREN SEINALERIK EZ DA IRISTEN TOKI BATZUETARA.	-	-	-	-	-	-
HEZKUNTZA						
Eskola berria eraikitzea premiazkoa da, bertan jangela eta haurtzaindegia izango dituena.	2	0	8	0	1	1
2. LANTALDEA						
KULTUR ONDAREA, AISIALDIA ETA KIROLA						
Udalak errota zaharrak eraberritzeko proiektuen arazoa diru kantitate handiak eskatzen dituela da batzuen esanetan.	3	1	3	3	0	0
Ez dago nagusientzat jubilatutako etxe edo bestelako lokalik, baina oraingoz beharrik ere ez batzuen ustez.	4	2	1	0	4	0
Herrian dagoen merenderoa abandonatuta omen dago.	3	3	1	2	1	0
Ez dago gazteentzako lokalik, baina beharra badutela uste dute batzuk.	5	1	1	2	2	1
Batzuen ustez, herria handituz gero edo eskola berriarekin batera kiroldegi bat jartzea aztertu beharreko gauza izango da.	5	1	1	2	2	1
Igerileku baten premia sumatzen dute batzuk.	1	5	1	1	0	0
<i>Batzuen ustez udalerrian kultur ekintza desberdinak bultzatzeko teknikari bat egotea interesgarria litzateke, baita ekintza hauek aurrera eramateko dinamizatzaile bat ere.⁴</i>	1	0	6	0	0	3
<i>Egoera politikoa dela eta, herriarentzako ekintzak antolatzeke motibazio maila jaitsi egin da batzuen ustez.</i>	1	1	5	0	1	0
<i>Udalak helduentzako jarduerak subentzionatzen ditu, baina ez haur eta gazteen jardura edo beharrak, eta laguntza ekonomiko hori jasotzea garrantzitsua dela diote batzuk.</i>	1	0	6	0	0	3

⁴ Kurtsibaz eta beltzez ageri direnak, Herri Batzarrean herritarrek kentzea erabakitako arazo eta gabeziak dira.

<i>Arazo eta gabezien zerrenda</i>	Ados			LHT ¹		
	Bai	Ez	BG ²	1	2	3
<i>Egoera politikoa dela eta elkarte eta udalaren arteko erlazioak okerrera egin du eta udalak proposatutako ekimenetan parte-hartze baxua izaten da ondorioz batzuen ustez.</i>	1	1	5	0	0	3
ELKAR-BIZITZA						
Udalak herria bizirik mantentzeko edo bultzatzeko ekintzetan inbertsio gehiago egin beharko lituzkeela uste dute batzuk.	2	2	3	0	0	2
Ehiztariak kontrolatu beharra dagoela diote batzuk, edozein lekutan ibiltzen baitira tiroka, etxe inguruetan ere bai.	4	3	0	0	0	4
Txakurrak libre ez uztea eskatzen dute batzuk.	6	0	1	1	0	5
HIZKUNTZEN BIZIKIDETASUNA						
NAHIZ ETA HERRITARREN GEHIENGOA EUSKALDUNA IZAN, GAZTELERAK INDAR HANDIA DU HERRIAN.	-	-	-	-	-	-
MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA						
Errepide sarea egokia izan arren, batzuen ustez mantentze lanak egitea ondo legoke, apurtzen utzi gabe.	4	2	1	2	2	0
Altzo Azpin bidea estu samarra dela uste dute batzuk, eta bihurgune itxi batzuk ere badira.	5	0	2	1	1	3
N-1ean istripuren bat dagoenean auto asko pasatzen da herritik udalerrira saihezbide gisa erabiltzen dutelako.	4	0	3	1	2	1
Errepidea plaza nagusitik igarotzen da, eta bertan haur asko egoten direnez jolasean, batzuen ustez gune arriskutsua da.	6	0	1	0	2	4
Batzuk uste dute mugikortasunaren inguruan heziketa beharra dagoela herrian.	5	0	2	1	2	2
Inguruko herrietara oinez joateko lasterbideak galdua daude, eta batzuk itxita ere bai langan bidez.	4	0	3	3	0	1
Batzuen ustez udalerriko bideak seinaleztatu beharko lirateke herriko eta kanpoko jendeak erabil ditzan.	6	0	1	1	5	0
Bideetan baserriak seinalizatzea eskatzen dute batzuk.	3	0	4	0	2	1
Nahiz eta herriko plazan aparkatzea debekatuta egon, garabirik ez dagoenez jendeak lasai aparkatzen du bertan.	6	0	1	1	1	4
Batzuk uste dute aparkaleku gehiago jarri beharko liratekeela.	3	3	1	1	2	0
Garraio publikoaren eskaintza hobetzeko beharra ikusten dute batzuk.	5	1	1	1	2	2
Bideak garbi edukitzeko elurra kentzeko makina bat edukitzea proposamen ona litzatekeela uste dute batzuk.	4	0	4	0	2	1

<i>Arazo eta gabezien zerrenda</i>	<i>Ados</i>			<i>LHT¹</i>		
	<i>Bai</i>	<i>Ez</i>	<i>BG²</i>	<i>1</i>	<i>2</i>	<i>3</i>
3. LANTALDEA						
OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUAK						
Batzuen ustez herria hazi denez eta haurrek erabiltzen duten gela libre geldituko denez sendagilearen zerbitzua berreskuratu beharko litzateke.	3	1	0	1	1	1
Nagusiek osasun arreta etxean jaso beharko luketela uste dute batzuk.	4	0	0	0	0	3
Etxez- etxeko laguntza etxeko diru sarreraren arabera denez, bada laguntza hori eskatu eta eman ez zaion familiarik herrian.	0	2	2	0	0	0
Batzuen ustez oraingoz ez da eguneko zentro baten beharra sumatzen.	0	4	0	0	2	0
URA						
Uraren arazoa handia da Altzon eta eraikiko den Ibiur urtegiaren zain daude herritarrek.	3	1	0	0	0	3
Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren baitan dago uraren eskumena eta uraren prezio igoera ekarri omen du horrek.	4	0	0	2	0	2
Gipuzkoako Ur Kontsortziotik irten nahi izanez gero baldintzak ez direla udalerraren aldekoak izango uste dute batzuk.	4	0	0	2	0	2
Gaur egun hobi septikoak beteta daudenez ur zikina errekarra doa zuzenean. Saneamendua egokitu beharra dagoela uste dute batzuk.	4	0	0	0	1	3
HONDAKINAK						
Batzuk uste dute gehiago ohitu beharra dagoela konpostagailua erabiltzera.	2	0	2	0	2	0
Geroz eta hondakin gehiago banatu arren, eta dagokion edukiontzian utzi, hondakinen inguruan badagoela non hobetu uste dute batzuk.	4	0	0	0	2	2
BASERRIA						
Baserritik bakarrik bizi den pertsona kopurua oso baxua dela diote batzuk.	4	0	0	1	0	3
Batzuk lehenengo sektoreari buelta bat eman beharra dagoela uste dute, laguntza gehiago emanaz eta irtenbide berriak bilatuz.	4	0	0	1	3	0
Tipula Altzoko produktu bezala bultzatzea eskatzen dute batzuk.	0	3	1	0	0	0
INGURUNE NATURALA						
Altzoko ingurune naturala zaindu beharreko altxorra dela uste da.	4	0	0	0	2	2
Lehenengo sektorearen beherakadak eragin handia izan du paisaian batzuen ustez.	4	0	0	1	0	1

<i>Arazo eta gabezien zerrenda</i>	<i>Ados</i>			<i>LHT¹</i>		
	<i>Bai</i>	<i>Ez</i>	<i>BG²</i>	<i>1</i>	<i>2</i>	<i>3</i>
Oraindik badira naturalak diren baso txikiak udalerrian eta mantentzea garrantzitsua da batzuen ustez.	4	0	0	1	0	3
UDALAREN ONDAREA						
Kanposantu inguruak garbitzeko beharra sumatzen dute batzuk.	1	2	1	1	0	0
INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA						
Batzuk diote udala ez dela herritarrak egoki informatzeaz arduratzen.	0	4	0	0	0	0
Batzuentzat udalak oztopoak jartzen ditu komunikazioan: udalbatzaren osoko bilkurak eta bilerak aproposak ez diren orduetan jartzea, aktarik ez jasotzea, informaziorik ez luzatzea...	0	4	0	0	0	0
Batzuen ustez udal ordezkariak udaletxean ez egoteak komunikazioa zailtzen du.	1	3	0	1	0	0